



ARGIA

Milioika lagun irten dira kalera Palestinaren defentsan

Genozidioa gelditzea gure esku dago

4-9. orrialdeak

#2844 | 2023 / 10 / 29 | 4,00 €



**Gasteizko zaintza
kamerak: segurtasun
falta, gezurrak eta
kontrol soziala**

24 | GIZARTEA



**“Euskara abertzaleen
proiektu nazionaletik
askatu behar dugu”**

30 | AMAIA NAUSIA



LARRUN #290

**Hiri-eredua
eta bizikleta**

Liburu honetan, 2002an hasi eta hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak ARGIAko Net Hurbil sailean idatzitako ehunka artikuluen aukeraketa bat aurkituko duzu. Baina ez erratu, hau ez da bilduma bat. Edo ez behintzat...

ARGIA LIBURUAK

Zubiria
zuzen
erakus
datena
gogor
nuzite
da eta
dizu, he
Eniko L

PLANETA PREKARIOAN

XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak



Liburu berria

Prezioa **22€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

Eskaintza berezia


Azaroaren 5a arte

+ ARGIAkoa eginez gero
jaso etxean opari
argia.eus/eginargiakoa

+ Kide bazara **20€**-an
(+34) 943 37 15 45
azoka@argia.eus

Hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak ARGIAko Net Hurbil sailean idatzitako artikuluen aukeraketa bat, gaurko eta biharko mundua hobeto ulertzeko balio dezakeena.

Planetako kontinente guztietako gertaerak, historiak, bizipenak, datuak eta analisiak, lastorik gabeko idazkera fin eta zorrotza erabilia.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: FADEL SENNA / AFP

Iritziak

- 19 | HIRUKI LARROSA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | LAURA PENAGOS
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | EIHAR EGAÑA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
NOELIA SANCHEZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



24 | ZAINITZA KAMEREK EZKUTATZEN DUTENA

Estitxu Martínez de Guevarak erreportajeaz azaldu du Gasteizen udalak jarri nahi dituen kamera berriak ez direla eraginkorrak "segurtasuna" indartzeko, eta aldiz, herritarren hainbat eskubideren galera dakartela. Instalatzeko "egiazko arrazoak" batzuk ere seinatu ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Nazioarteak ez ditu entzuten Sudango bonben leherketak

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | PEIO RUBIO

"Nire bidaiarik onena baserria izan da"

Danele Sarriugarte

30 | EUSKARA NAFARROAN | AMAIA NAUSIA

"Euskara abertzaleen proiektu nazionaletik askatu behar dugu"

Xabier Letona

34 | OSASUNA | CHEMSEX

Sarean landu beharreko osasun publikoko arazoa

Olaia L. Garaialde

44 | KULTURA | HERIOTZA LITERATURAN

Bizitzaz

Ainhoa Aldazabal

46 | KULTURA | KATHARINE HEPBURN

Tifoi argal, pekatsu eta harroa

Julen Azpitarte

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mattin Azpiroz,
Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA




software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Erresistentzia

Irudian ez doaz ihesi. Bere etxera bueltan doa Raghda Abu Marasaren familia, beste palestinar asko bezala. Ez ipar eta hego, Gazan ez dagoelako leku segururik. Ez lehen, ez orain. Palestinan izan denak ondo daki zeinen errotuta duten etxea ez uzteko –eta errefuxiatuen kasuan, hara itzultzeko– erabaki irmoa. Sionisten bonbak buru gainean daudela ere. Okupazioari aurre egiteko era zilegia da Palestinan, armak hartzea bezainbat.



EMA

Palestina-Israel gatazkaren jatorria

 MAR GIJÓN MENDIGUTÍA / THE CONVERSATION CC BY-ND 4.0



Palestina-Israel gatazka deritzonak XIX. mendearen amaieran lurralde horretan gertatutakoan du jatorria. Gatazkaren kausak ez datoz erlijiotik, mugimendu sionistak egindako kolonizaziotik baizik. Sionismoa doktrina bat eta proiektu politiko bat da aldi berean, nazionalista eta koloniala sorreratik.

SIONISMOA, SYKES-PICOT ISILPEKO AKORDIOAK ETA BALFOUR ADIERAZPENA

Theodor Herzl Austrohungariar Inperioan jaiotako kazetari judutarrak sortutako mugimendu politikoari aplikatzen zaio sionista terminoa 1896az geroztik. Mugimendu hori hasieran erlijioan oinarritu ez bazen ere, erlijioa erabili zuen erakargarri gisa estatu judua sortzeko.

Herzlek *Der Judenstaat* (Juduen egoera) idatzi zuenean, Palestina ez zen bere lehentasuna. Lehenago beste leku batzuk aztertu zituen nazio berria sortzeko: Argentina, Uganda, Zipre, Kenya, Mozambique, Sinai penintsula edo Kongo.

Azkenean Palestina aukeratu zuen, bere alde zuen "kondaira boteretsuak (erlijiosoa)" bultzatuta, nahiz eta hark, eta laguntzen zuten beste buruzagi sionista batzuek, ateotzat edo "ez-sinestuntzat" jo haien burua. Mugimendu sionista proiektu kolonial bihurtzen joan zen hasiera-hasieratik (buruzagiek hala aitortuta), lurraldea pixkanaka, kolonien bidez, bereganatzeko asmoa baitzuten. Otomandar Inperioaren laguntza bilatu zuten hasiera batean, eta britainiarrena ondoren, azken horien artean jarraitzaile garrantzitsuak baitzeuzkaten, Lionel Walter Rothschild bankaria, besteak beste.

Bestalde, eta Lehen Mundu Gerraren testuinguruan, nabarmendu behar da Frantziak eta Britainia Handiak arabiarren laguntza behar zutela otomandarreri aurre egiteko. Ondorioz, Ekialde Hurbileko eta Ekialde Ertaineko "iratzartze arabiar handiaren" inguruko independentzia-nahia baliatu zuten helburu hura lortzeko.

Hala eta guztiz ere, bi potentziek ildo horretatik egindako promesak iruzurtiak ziren hasieratik. Arabiarrei independentziarako proposamenak egiten zizkieten bitartean, bi herrialde horiek Inperio eraitsiaren lurraldeak haien artean banatzen zituzten.

Benetako planak 1916ko Sykes-Picot akordio sekretuetan joan ziren taxutzen urtetan zehar. Boltxebikeek agerian utzi zuten akordioa tsarraren erorketaren ondoren. Sir Mark Sykes ingelesak eta George Picot frantsesak bi eremutan banatu zuten eskualdea, zatiak bakoitzaren eraginpean jarriz "mandatuen" bitartez. Horren ondorioz, "Siria Handia" desegingo zen, Siria eta Libano Frantziaren esku geratuz, eta Transjordania (gaur egun Jordania), Irak eta Palestina Britainia Handiaren esku.

Egoera larriagotu egin zen Palestiarentzat, zeren kolonizazio ingelesa hastearekin batera britainiarrek akordio formal bat egin baitzuten mugimendu sionistarekin, 1917ko Balfour Adieraz-

penean jasota dagoena, zeinean "Palestina jaioterri nazional judua" sortzeko konpromisoa hartu zuten formalki. Horrek are gehiago sustatu zuen XIX. mendearen amaieran hasia zen Palestina historikoaren kolonizazio sionista.

Gainera, sionismoak mugimendu kolonial gisa zuen izaerak aplikatu zuten –eta jarraitzen du aplikatzen gaur egun– “kolonizazio zuria” deitutako eredia. Horren arabera, emigratutako biztanleriak, kolonoak osatuta, bertako biztanleria *ordezkutzen* du alor guztietan. Kontzeptu hori lotuta dago zuzenean biztanleriaren “transferentzia” terminoarekin, kanporatzea ez esateko erabilitako eufemismoarekin hain zuzen. Ideia hori agertuko da buruzagi sionistek egindako eta nazioarteko instantzietan aurkeztutako plan guztietan, geroago indar militarrek gauzatu zituztenak.

BRITAINIAR MANDATUA ETA PALESTINAREN BANAKETA

Gauzak horrela, ingelesek Palestinaren kontrola hartu zuten 1917an, 1920an ofizialdu bazen ere. Horren ondorioz, palestinarrek hainbat krisi bizi izan zituzten kolonialismo ingelesari, eta honek migrazio sionista etengabe eta oldarkorari ematen zion babesari, emandako protesten testuinguruan.

Horren adibide batzuk dira al-Buraqeko altxamendua 1929an, 1933ko istiluak, arabiar matxinada handia (*al-Zawra al-kubra*) 1936-39an, eta, azkenik, Palestina historikoaren zati handiaren suntsiketa 1948an.

Aurrekoaren ondorioz, britainiarrek Palestinaren arazoa Nazio Batuen esku uztea erabaki zuten 1946 eta 1947 bitartean. Horretan eragina izan zuten alde batetik AEBek momentu horretan babestutako eskakizun sionistek zein Palestinako juduek britainiarren aurka egindako terrorismo gero eta indartsuagoak. Beste aldetik arabiarren presio gero eta handiagoa zegoen, bertakoen eskubideen eta egindako promesen betetzea eskatzen zuena.

1947ko azaroaren 29an, ia esperientziarik ez zuten Nazio Batuek, 1945ean sortua baitzen, formalki bozkatu zuten Palestinaren zatiketa, 181 Ebazpenaren bidez, zeinean lurraldea bi estatutan – judua eta arabiarra – banatzea baimentzen baitzen.

Hala, Nazio Batuek ez zioten jaramonik egin herrialdeko bertako populazioari; lurraldearen % 55 eman baitzio-

ten Estatu juduari, biztanleria nagusiki arabiarra zenean (musulmanak eta kristauak), eta biztanleria judua lurraldearen % 6 izatera iristen ez zenean.

Bi taldeek errefusatu zuten proposamena. Juduek lurralde gehiago nahi zutelako biztanleria arabiarrik gabe, eta arabiarrek ez zeudelako prest lurra banatzeko haien desarabizazioa bilatzen zuten komunitate kolonizatzaile batekin.

ISRAELEN SORRERA ETA NAKBA

Azkenik, burututako kolonizazioaren helmuga zen Israel Estatu sortu zen 1948ko maiatzean, alde bakarretik aldarrikatuta. Horrek lurraldearen eraldaketa bortitza ekarri zuen, baita palestinarren erdiaren baino gehiagoren kanporatzea ere. Horietako gehienak errefuxiatu bihurtu ziren, gero eta iker-tzaile gehiagok garbiketa etnikotzat duten prozesuan.

Bizileku zituzten hiriak, herriak, herrixkak eta auzoak eraitsiak izan ziren edo bizilagunak egotziak, interesaren arabera, eta kolono iritsi berriekin birgaituak

Hainbat sinesmenetako (musulmanak eta kristauak) eta kokapen sozialetako 750.000-800.000 pertsona kanporatuak izan ziren haien etxeetatik eta lurretatik, arabieraz *al-Nakba* (hondamendia) deitzen den gertakizunean. Zituzten ondare pertsonalak eta kolektiboak desjabetuak edo suntsituak izan ziren.

Era berean, bizileku zituzten hiriak, herriak, herrixkak eta auzoak eraitsiak izan ziren edo bizilagunak egotziak, interesaren arabera, eta kolono iritsi berriekin *birgaituak*.

Harrezkero, gizarte palestinarra hiru taldetan sakabanatuta geratu zen bertiko: inguruko arabiar herrialdeetara edo beste leku batzuetara egotzi zituztenak, sortu berri zen Israel estatuan geratu zirenak (errefuxiatutzat jotzen ez direnak); eta Palestina historikotik geratzen ziren lekuetara (Zisjordania, Gaza eta Jerusalem) joan zirenak. Horietako inori ez zaio baimendu, gaur arte, jatorrizko etxeetara itzultzea. ●

Israelek hasieran ukatu eta gero onartu zituen beste lau eraso

 XABIER LETONA BITERI

Israelek ukatu egin du 500dik gora hildako eragin zuen Gazako Al Ahli Baptist-eko eraso berak egin zuenik. Beste askotan ere hala jokatu izan du, eraso egin, ukatu eta azkenean onartu, batez ere ikerketek Israelgo armada izan zela erakutsi dutenean.

The Middle East Eye hedabideak egindako bideoan, azken urteetan Israelek hasieran ukatu eta gero onartu dituen lau erasoren errebaso egiten du. 2022an Gazako Jabalya errefuxiatu esparruko azokari eraso zioten Israelgo hegazkinek: 105 pertsona hil zituzten eta beste 120 zauritu. Bederazi egun behar izan zuten Israelgo armada izan zela onartzeko.

Shireen Abu Akleh *Al Jazeera*-ko kazetari ezagunaren kasua ere asko hedatu zen. Hasiera batean, militante palestinarrek hil zutela esan zuen Israelgo armadak, eta hilabeteak eta gero, ikerketek inguratuta, seguruenik Israelgo soldadu baten tiroa izan zela onartu zuen. Ikerketak erakutsi zuten soldaduak apropos egin ziola tiro burura kazetariari.

2006an Libanoko Qana herriko eraikin baten aurkako aire eraso egin zuen Israelgo Armadak https://es.wikipedia.org/wiki/Bombardeo_de_Qana_de_2006#cite_note-14 bi misilekin. Eraikin osoa ondoratu zen eta 28 zibil hil ziren. Hezbolá egin zuen errudun Israelek, eta jakinarazi zuen egun batzuk lehenago etxe hori eta ingurukoak husteko agindua eman zuela.

1996an NBEko kanpamentu bat bonbardatu zuen Israelek eta Libanotik ihesi zihoazen 106 zibil hil zituzten. Eraso honetan ere Israelgo Armadak hasieran ukatu egin zuen, baina azkenean onartzen bukatu zuen. Informazio gehiago nahi duenak, hemen du bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=i9TwBqDe_I0. ●

EAEko enpresen eta Israelen arteko negoziak

AXIER LOPEZ

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresen eta Israelen arteko negoziak 53 milioi gehiagotan handitu dira, iaiztik aurtengo uztaiera arte. 2022an estatu sionistak 200 milioi inguru gastatu zituen EAEko enpresetako produktuetan. Palestinako lurretan eraikitako kolonien harira negozio itzela egiten ari den CAF da horren buru. Hala, EAEko 20 erosle nagusietakoa bilakatu da Israel.

Euskal enpresek ia 200 milioi euroko produktuak saldu zizkieten Israeli 2022an, Australia edo Kanadaren mailan, Adrian Legasak Cronica Vasca atarian azpimarratu duenez. Eustatek uztaiera arte landutako datuen arabera, zifra hori handituz doa aurtengo lehen erdian: iazko aldi horretan baino 53 milioi gehiago, %52 gehiago.

2023an 300 milioi inguruko negoziobolumena aurreikusi dute, baina ikusteko dago palestinaren aurkako sarraskiak nola eragingo duen horretan. Zifrek ildo beretik jarraituko balute, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan egindako produktu gehien erosten dituzten 20 herrialde-

tako bat litzateke Israel, Brasilen maila antzekoan, baina Alemania, Frantziako Estatuak, AEBak, Erresuma Batua edo Italiatik urrun, uztaieran 1.000 milioi baino gehiago gastatu zuen euskal enpresen produktuetan. Aldiz, 2022an Zisjordaniarako eta Gazarako salmentak bi milioi euro pasatxokoak izan ziren EAEn.

2020ko "Nazioartekotze Estrategia" txostenean adierazi zuten, "Ekialde Hurbilean, Israel lehentasunezko bazkidea da ikasteko" Eusko Jaurlaritzarentzat.

OKUPAZIOAREN PAGOTXA

Israelgo apartheidarekin negoziak egiten dituzten enpresak askotarikoak badira ere, aurtengo igoeraren arrazoa Israelek okupatutako lurretan Beasaingo CAFek ezarri duen negozioa da. Uztaiera arte EAEko enpresek Israeli egindako salmentetan lortutako 155 milioien erdia baino gehiago CAFi dagokio.

Palestinaren aurkako eraso hasi ostean, CAFek adierazi du Israelen dituen negoziok ez dutela "kalterik" jaso, eta Israelen dituen langile guztiei -ehun langile baino gehiago- "tefelana" egiteko eskatu die. Bi proiektu handi ditu esku artean CAFek palestinarekin lapurtutako lurretan, Saphir eraikuntza-enpresa israeldarrarekin batera: Tel Aviveko tren arinaren eraikuntza eta Jerusalem eta lurralde okupatuetan eraikitzen ari diren kolonia israeldarrak batuko dituen tranbia polemikoa.

Hori dela eta CAFi kontratu honi uko egiteko eskatuz kanpaina abiatu zuten LABeko langileek lehenik, gero enpresa komite osoak eta gaur egun nazioarteko kanpaina bilakatu da. Palestina Askatzeko Erakundeak publikoki eskertu zuen CAFeko langileen jarrera. CAFek ez entzunarena egin die kritikei, negozioa lehenetsita.

"BRANDALISM" DONOSTIAN

ARGIAk jakin duenez, "CAFen hipokresia" salatze Donostiako bi markesinatan ekimena egin dute, Israelen erasoarekiko Beasaingo enpresaren atxikimendua erakusten duten bi publizitate-kartel paratu dituzte. Hebreerazko esaldian "Palestina Askatu" jartzen du. ●

EKONOMIA

Palestina suntsitzearen negozioa



AINHOA ETXAIDE AMORRORTU

Palestinaren suntsiketaren interes ekonomiko partikularrak dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresek; eta kasu honetan ere, politika publikoetan eragiteko boterea duten enpresak dira, instituzioetan botere politikoa dutenek aukera hori ematen dietelako.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailak 2023. urte amaierarako eta 2024rako iragarri eta aurreikusitako jardura ekonomikoaren bizkortzea, lurralde horretako Barne Produktu Gordinean islatuko da gainera. Hor-taz, EAEn sortzen den aberastasunaren kalkulua egiterakoan, Gazan etengabe egiten ari diren sarraskia jaso beharko litzateke aberastasun iturri bezala. Sinplistegia irudituko zaio agian norbaiti irakurketa, baina hazkunde ekonomikoaren atzealdea bere osotasunean eta gordintasunean aztertzen badugu bederen, halakoak aurkituko ditugu.

Ez dago negozio hori justifikatzerik. Sortzen diren lanpostuak; enplegu horrek langileei ez ezik, gizarte segurantzari ematen diona; ekoizpen egitura eta industria sektore sendoa edukitzeak duen garrantzia gure garapen ekonomiko eta sozialean... ez dago heldulekurik. Badugu ordea zer aztertu eta zer pentsatu estatistika institutuak BPGaren datua eguneratu eta argitaratzen duten bakoitzean. Jakina da bertan ez dela etxeetan egiten den zaintza lana jasotzen, eta herri ekimenei sortzen duten aberastasuna alboratzen duen datua dela. Baina batez ere, lehen aipaturiko hazkunde ekonomikoaren atzealde hori ezkutatzeko du adierazleak. Nahita nahiez biluztu behar dugun eta argitara ekarri behar dugun atzealdea da, zalantzarik gabe. ●



CAF enpresak estatu sionistarekin duen elkarlana salatze Donostiako zenbait markesinatan agertutako publizitate-kartelak.

Palestinaren aldeko protestak lehertu dira munduan

Palestinari elkartasuna adierazi eta Israelen genozidioa salatzeke, mobilizazioak biderkatu dira munduan zehar. Donostian, manifestazio nazionalak milaka lagun bildu zituen joan den

asteburuan, Gernika-Palestina ekimen herritarrak deituta. Bilbon beste manifestazio nazional bat deitu dute urriaren 28rako, "Gora palestinar erresistentzia! Sionismoa genozida" lelopean.

📷 JON URBE (FOKU) / AP / VICTOR SERRI (LA DIRECTA)

1) Donostia 2) Bartzelona 3) Londres (Ingalaterra) 4) Bagdad (Irak) 5) Saná (Yemen)



ANALISIA



Nola uztartu herrigintza eta udalgintza?

LEIRE ARTOLA ARIN

Burujabetza jardunaldiak egin dituzte Hernanin urriaren 19tik 21era bitartean, “esperientzia eraldatzaileak” ezagutu, elkarbanatu eta burujabetzari buruz hausnartzeko. Hernani Burujabe herri ekimenaren bidez egin dituzte hitzaldi eta ekintzak, baina Hernaniko Udala eta Udalbiltza ere izan dira bultzatzaileak. Hain zuzen, herrigintza eta udalgintza ikuspuntu eraldatzaile batetik jorratzea izan da helburua, eta Itsaso Lekuona zinegotziak gogorarazi du hiru erpin dituela Hernani Burujabe proiektuak: herritarra, publikoa eta ekonomikoa. Baina nola uztartu herritarren udalean, eta udala herrian?

Lekuonak aitortu du askotan udalak “pisu handiegia” hartzen duela eta erpinen arteko oreka bultzatu behar dela, “denok erritmo berdinean jartzeko”. Zaila izaten da, ordea. Lekuonak bi puntu garrantzitsu aipatu ditu, oreka lortu ahal izateko. Batetik, nabarmendu du herritarrek ere erabakitzeke eremuak izateko beharra; hot, udalak herritarrei eskaini behar die eta erraztasunak jarri behar dizkie norbere udalerrian gertatzen denaren parte izan daitezela. Bestetik, herritarrei erabakiguneetan egoteko ardura hartzea eskatu die; alegia, aditzera eman du herritarrek ere euren udalerrietan aktibo izatea eta parte hartzea ezinbestekoa dela. Parte hartzea eskubidea da, baina herriaren, bizimoduaren, Euskal Herriaren edota sistemaren eraldaketa nahi izanez gero, badu betebeharrak ere.

Herritarren ardura hori hartu zuten hainbat hernaniarrek 2021ean, eta Hernani Burujabe ekimena abiatu zuten, “berreskuratu dezagun gure baliabideen kontrola” aldarrikatuta. Udalerriak horretarako testuinguru egokia duela arrazoitu zuten: landa eremuan jarduten duten nekazari eta abeltzainak, industria, merkataritza indartsua, eta baita “borondate politikoa eta herri mugimendua” ere. Orditik ekimenean dihardute herriko merkatariek, ekoizleek eta ekonomia eraldatzailean dabilen eragileek. Sektore aniztasun horren isla izan dira Burujabe jardunaldiak.

Urriaren 19an udalgintzaren eta burujabetzaren ganean hausnartu eta marko teorikoa eman zioten hizlari adituak. Herritarren eta udalen arteko sinergiak nola batu eta eragiteko mugak nola gainditu, horiexek izan ziren landutako bi gako. Esaterako, Laia Forné La Hidra kooperatibako kideak Bartzelonako Udalean izandako esperientzia partekatu zuen, eta gobernantza publiko-komunitarioaren alde egin zuen.

Udaletzeko areto nagusian egin ziren lehen eguneko hitzaldiak; eta administrazioaren espazioan teorizatzen, udalak kudeatzen duen baina zenbait eragile biltzen dituen Kulturarteko Plaza Feministara igaro ziren urriaren 20an. “Burujabetzak lurreratzeko”, herritarren egunerokoaren ardatz diren lau arlo jorratu zituzten: elikadura, zaintza, hezkuntza eta lana.

Hirugarren egunean, kalera egin zuten jauzi. Espazio irekian, herriko plazan, kaleetan... burujabetzen kalejira egin zuten, denok ikusteko moduan herritarren ekoizpen, proiektu eta sorkuntza kulturalak, espazio publikoan. Datozen hilabeteetan ikusiko da ea elkarlan publiko, kooperatibo eta herritarra bideragarria eta eraginkorra den. ●

Epai gehiago, udalak euskara hutsean aritzearen aurka

ERREDAKZIOA

Astebetean bi kolpe eman ditu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Udaletan euskara lehenesteko aukera zabaltzen duen udal legearen aurkako epaiak izan dira biak.

Voxen helegite bat onartu eta euskaldunen hizkuntz eskubideen aurkako enegarren epaiak iritsi zen lehena. Udal legea euskararen alorrean garatzeko dekretuaren zenbait artikulua bertan behe- ra utzi ditu Auzitegi Nagusiak, euskara lehenesten zutenak. Jaurlaritzak erre- kurtsua jarri dezake.

Handik egun gutxira, PPren helegitea partzialki onartu du Auzitegi Nagusiak. Horren ondorioz, toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera institu- zionala eta administratiboa normaliza- tzeari buruzko 179/2019 dekretuaren hiru artikulua baliogabetu ditu Luis Gar- rido magistratua buru duen Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien aretoak. Hala, idatzizko hainbat doku- mentu ezingo dira euskara hutsean egin, eta ulertzen da bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, egin beharko direla. Epaiak ez da irmoa eta Eusko Jaur- laritzak 30 eguneko epea du Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko.

Miren Segurola UEMA Udalerri Eus- kaldunen Mankomunitateko koordina- tzaileak behin baino gehiagotan adierazi izan du, UEMAk udalak gaztelaniaz fun- tzionatzera derrigortuz gero, herri txi- kiak direnez gehienak, giza baliabide eta baliabide ekonomiko urriengatik ezingo luketela barne funtzionamendu osoa bi hizkuntzetan egin. UEMAK eta udalek euskara lehenesten jarraitzeko asmo sendoa dutela ere baieztatu izan dute.

Euskalgintzaren Kontseiluak azaroa- ren 4ko manifestaziora deitu ditu he- rritarrak *Oldarraldiaren aurrean: eus- kararekin bat, euskarak bat* lelopean. 17:00etan abiatuko da Euskaldunatik (Bilbo). Kontseiluak oldarralditzat jo du azken bolada luzean auzitegietatik hel- du den euskararen aurkako sententzia andana. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Konponbideak



UXUE APAOLAZA LARREA

Argentinako politikan interesa duen edozein ezkertiarrentzat, gau beldurgarria zen joan den igandekoa. Hauteskundeak egin zituzten. PASO esaten dieten primarioetan erein zen beldurra, ultraeskuina bere bertsio eroenean garaile atera zenez. Dardaraka bildu ginen bakoitza bere ordenagailuaren aurrean, tragedia beltzena gertatzen ez bazen (Mileik lehen itzulian irabaztea), tragedia gertatzen ez bazen (bigarren itzulia Bullrich-Milei, eskuin-eskuin, izatea), asko pozteko asmo osoz. Ez zen gertatu ez bata, ez bestea, bigarren itzulia peronismoaren hautagai Massaren eta ultraeskuindar Mileiren artekoa izango da. Eta ez naiz poztu.

Mileik bere burua anarkokapitalistatza definitzen du, liberala da, ekonomialari teoriko bat, Austriako eskolakoa. Gaur egungo diskurtso politikoek uzten dituzten hutsuneak betetzeko nahiko vintage jartzen ari da dena, han eta hemen, ezker eta eskuin. Mileik Espainiako ezkerriari lapurtu dio masak mugitzeko hitz klabeetako bat: *kasta*. Eta kontua da ezkerreko diskurtsoaren eta jardunaren eta errealtatearen hutsuneak betetzera etorritako diskurtso arrakastatsuek ez dira ezker vintage-etik etortzen (demagun, XIX. eta XX. mendean iltzatuta geratu den talde komunistaren bat). Ultraeskuina izaten da, eta ez formula berriagoekin.

Peronismoak ez du ezker ildoko hautagai bat aurkeztu, Massa liberala baita. Graboisek lehiatu zen haren aurka primarioetan, izendatzaile humanista bat. Argentinako arazo nagusietako bat inflazioa da, pesoaren balioa, eta dolar falta (zorra ordaintzeko). Graboisek ohartarazten du: Mileik proposatzen duen dolarizazioa ezinezko erokeria bat da, baina konponbide bat ere bada, okerra, baina bat. Eta jendeak soluzio bat behar du.

Heda dezagun gaia. Zer gudu ari da gure ezkerria eman gabe uzten? Hitz egiten ari gara migrazioaz? Hitz egiten ari gara Europa izan den burujabetzak osteko engainuaz? Hitz egiten ari gara, gutxienez, oinarritzko lau gauza nazionalizatzeaz? Ematen ez ditugun bataila deserosoak ez dira eman gabe geratuko. Ezkertiarrek ez bagara, ezkerria behar duen jendea ezer gabe geratuko da. Eta soluzioak beharko ditu. Argentinan peronismoak Massa aurkeztea erabaki du, bataila horiek ez emateko, pentsatuz, sozialdemokrazia eskuindardu batek beldur gutxiago emango duela. Baina ez duenak konponbideak beharko ditu. Eta, agian, Mileik bakarrik emango dizkio. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
 www.adurlarrea.com


MOTZEAN

Jose Ignacio Asensio PSE-EEko kide, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasuneko sailburu eta Gipuzkoako Hondakinen

Kontsortzioko presidentea ikertzen ari dira ingurumenaren aurkako delitua egin al duen ebazteko. Dokumentuak faltsutu ote dituen argitzeko ere eskatu du Fiskaltzak.

Australiako Konstituzioan aborigenak aintzat hartzeko gobernuaren proposamenari uko egin diote australiarrek, erreferendumean. Gehiengo zabalak ezetz bozkatu du.

Lezoko Lobato Etxea hustu du Ertzaintzak. Martxoan jakinarazi zuten Lobato Etxeko kideek "huste arriskuan" zegoela, eta edozein unetan gerta zitekeela etxearen husketa.

Iberdrolak 2013an argindarraren prezioa puztu zuela ondorioztatua du Espainiako Merkatuaren eta Lehiaren Batzordeak. Iberdrolaren aurkako epaiketa egin da egunotan.

Euskal Monetak kasik 70.000 eusko banatu ditu 2023an, erabiltzaileek babestutako 44 elkarteren artean. AEK izan da lehengo urtetik gehien hazi den elkarte.

NAZIOARTEAK EZ DITU ENTZUTEN SUDANGO BONBEN LEHERKETAK ETA HERRITARREN BAKERAKO DEIAK

2019ko iraultza popularrari esker lortu zuten 30 urtez presidente izandako Omar al-Baxir boteretik haizatzea. Armadaren laguntzaz bota zuten presidente ohia, baina trantsizio demokratikoaren alde segitu zuten borrokan, herritarrek soilik osaturiko gobernu baten sorrera helburu gisa harturik. Ondotik etorriko ziren estatu-kolpe berriek erakutsiko zieten dorpea ukanen zutela bidea. Duela sei hilabete hasitako gerrak desagerrarazi die esperantza oro. Nazioarteak begiratzen ez duen gerra odoltsu eta konplexu baten erdian dira sudandarrak apirilaren 15az geroztik.

🔴 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Gerra guztiek ez dute aipamen bera jasotzen. Guztietan dira erbes-teratuak, kolpatuak, hildakoak, bortxatuak eta betikoz minduak, baina guztiei ez zaie arreta bera jartzen. Adibiderik argiena dugu Ukrainako gerra, eta beste muturrean Sudanekoa. Egipto, Libia, Txad, Hego Sudan, Etiopia eta Eritrea estatuek inguratzen dute munduko hogeit hamar pobreenetan sailkaturiko Sudan. Pobreziari gerra gehitu zitzairen orain duela sei hilabete, eta bake akordioarik lortu ezinean, mendebaldetarron belarriek entzuten ez dituzten bonba eta tiro hotsez puntuaturik dituzte beraien egun eta gauak.

Sei hilabetez gerrak hildako 5.000 sudandar, lau milioi desplazatu, “ehunka mila” gosetean eta milaka kolpaturik, torturaturik edota bortxaturik. Nazio Batuen Erakundearen zifrak dira eta alarma piztu zuen arazo humanitarioen ardura duen idazkari nagusi Martin Griffiths-ek: “Zabalduz doan gatazka horrek –eta ondorioztaturiko gosete, eritasun eta lekualdakete– herri osoa desagerrarazi dezakete”. Desagerpen hori are probableagoa da klima larrialdiaren arloan munduko seigarren herri zaurgarriena delako eta muturreko fenomeno meteorologikoei aurre egin beharrean direlako gainera. Eta are probableagoa da, nazioartearen lehentasunetarik urrun delako Afrikako herri pobreen errea-

litatea. Ondokoa deitoratzen du Errefuxiatuen Norvegiako Kontseiluko William Carterrek: “Sudaneko egoerari ez zaio begiratzen. Ez da inorantzia, apatia da”.

Baina zerk zapartarazi zuen gerra 2023ko apirilaren 15ean? Nolaz arerio bihurtu ziren 2021az geroztik Trantsiziorako Kontseilu Subiranoan elkarren ondoan egondako Abdel Fatah al-Burhan estatuburu eta armadaburua eta *Hemetti* izendaturiko Mohamed Hamdan Dagaloo presidenteordea? Zer diote 1989az geroztik boterean zen Omar al-Baxir-en aurka 2019an karrikara ateratako milaka eta milaka sudandarrek? Zer diote matxinadan zehar bakea eta demokrazia goraiatzeko eta trantsizioa hitz ematen zebiltzan al-Burhanek eta Dagalok gerra zibila abiarazi izanaz? Galdera potoloak –are potologoak nazioarteko komunikabideetan aipatzen ez den gerra bat de-
nean–.

TRANTSIZIOA HITZETAN, BETIKOA EKINTZETAN

Sudandarren artean itxaropen haizea nagusi zen 2019ko apirilaren 11n al-Baxir boteretik kendu eta gobernu demokratikoa osatzeko aukera irabazi zutenean. Iraultza popularraren lehen larroan egondako FFC Askatasunaren eta Aldaketaren Indarrak gobernu zibila zuen xede eta karrikan segitu zuen, armada-
ren errepresioak eragindako dozenaka

hil pairatuz. Trantsiziorako Kontseilu Militarrek RSF Azkar Laguntzeko Indarra talde paramilitarraren laguntzaz –bi horien artean dago orain gerra– errepresioari ekainareko 3ko “Khartumeko masakrea” dute guztiek gogoan.

Azkenean, uztailaren 17ko akordioan onartu zuten boterea hiru urtez militarren esku ere gelditzea, ondotik hauteskunde bidez gobernu zibil bat osatzeko konpromiso argiarekin. Trantsizioa lehen hogeita bat hilabeteetan militarrek zuten Kontseilu Subiranoa gidatuko eta ondotik herritarrek. Kontseilua hamaika lagunek osatu zuten, zehazki, bost zibilek, bost militarrek eta bi aldeek aukeratutako beste zibil batek, txandakatuta. Baina horra non gidaritzak eskuz aldatu baino hilabete lehenago, 2021eko urriaren 25ean estu-kolpe berri bat burutu zuen al-Burhanek, adostutakoa zangopilatuz eta botere guztiak bereganatuz. Berehala dozenaka mila sudandar atera ziren Khartumeko karriketara. Trantsizioaren aldeko karta aurkeztu zuten 2022ko otsailaren 27an erresistentziarako herritar komiteek. Azkenean, zeozer adostu zuten bi aldeek, baina Askatasunaren eta Aldaketaren Indarraren eta herritarren babes anitzez gutxiagorekin eta armadari botere gehiago utzita: “[Indar armatuak] Nazioaren segurtasun balbula dira; bat eginda eutsi, eta beren lurra babestuko dute”, Al-Burhanen hitzetan. 2022ko



SU-ETENIK EZ

Su-eten iraunkorrik adostea ez dute lortzen bi aldeek eta aurrera doa gerra, sekulako desmasiak eraginez herritarren artean. 5.000 hildako eta lau milioi desplazatu baino gehiago eragin ditu gatazkak. Argazkia: rawpixel

abenduaren 5eko akordioak zekarren argiki bide-orria eta ondoko aldaketa zekarren agiriak: armada eta al-Baxir diktadore ohiaren erregimenaren jarraitzaileak –Dagalo hurbila eta adiskidea du al-Baxirrek– gai politikoetatik “erabat desagerraraztea”. Baina horrelakorik ez dute nahi ez militarrek ezta al-Baxirren lagunek ere.

BOTERE-BORROKA HERRITARREN BIZI-ZELAIAN


Boterean gelditu nahi dute eta horren erakusle dugu gerra: al-Burhan armadaburuak eta Azkar Laguntzeko Indarrak taldeko Dagalok biek nahi lukete gorenean gelditu. Gainera, akordioak aipatzen duen talde paramilitarraren

eta armadaren bateratzeari buruzko ezinek eta desadostasunek piztu zuten bien arteko gerra.

Dagalok lortu du Sudaneko armada bezain boteretsua den talde armatuaren osaketa, eta dagoeneko bere kontrolpean ditu Khartum hiriburuaren hiru laurdenak eta Sudaneko armadaren kokapen andana du setiaturik. Al-Burhanek hiriburu utzi behar izan zuen, Port Sudan hirian kokatuz bere kuartel nagusia. Apirilaz geroztik hamar bat su-eten izan dira, guztiak hauskorrek eta gaurko egunean oraindik ez da armak uzteko nahikeriarik sendi. Saudi Arabiak eta AEBek edo Afrika Ekialdeko Blokeak begiztaturik egin izan dituzte orain arteko negoziaketak.

Gerra hasi zenetik sei hilabete pasa direla, Sudan erabat bitan zatiturik da eta hainbat adituren arabera, litekeena da al-Burhanek gobernu berri baten osaketa deklaratzeko Sudan ekialdetik, Port-Sudanetik, eta Dagalok gauza bera egitea hegoaldeetik eta azkenean herria berriz bitan zatitzeko bidea irekitzea.

Gaur gaurkoz, gobernu zibilaren osaketaren 2019ko itzaropena desagerturik dute sudandarrek, gerran dabilzanek bakea baino gehiago boterea dutelako helburu, eta gainera, inguruko herriek ere nahiago dutelako militar bat solaskide, ez eta demokraziaren gauzaren dabilen gobernu zibil bat –kutsakorra izan daitekeelako askatasun gosea...-.



Garrett Light eyewear



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Peio Rubio

IRAULTZA PERTSONAL-KOLEKTIBOA



NIRE BIDAIARIK ONENA BASERRIA IZAN DA



75 urte beteta, bere paradisuan dagoela sentitzen du Txillarre baserriko Peio Rubiok, azken hiru hamarraldietako lanaren fruituak jasotzen. Pasioz mintzo da bizi izandakoaz. Irail amaierako asteazken goiz batez hartu gaitu etxean, eguzkiak eta zeru urdinak distira ateratzen diotela Elgoibarreko Sallobente bailaran.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Hurtzaroari buruz galdetzen badizut...

Zumaia gogoratzen dut. Zumaiarra naiz, Elgoibarren urte askoz gehiago bizi izan naizen arren. Txikitako bizipenak, sus-traiak, barruan geratzen zaizkigu.

Nolako zen giroa?

75 urte dauzkat. Garai hartan kalean jolastu, mobilik ez genuen, futbol-saioak Itzurun hondartzan, eta gaztetxotan mendira. Gaur egunean bezala, baina beste era batera.

Francoren urteak ziren oraindik. Hori nola oroitzen duzu?

Borrokan. 20 urterekin izan zen nire lehenengo manifestazioa, Etxebarrieta hil zutenean, Oñatin. Handik aurrera beti borrokan. Nire militantzia beti izan da troskismoaren mundua, ETA VI.etik

etorritako jendea, ETako bariante bat, 1970eko hamarkadan erabaki zuena borroka armatuari ezetz esatea. Europa edo estatu mailan elkartu ginen troskistekin, LCR zenarekin eta mugimendu troskista izan ginen, ezkerrekoa. Euskaraz, LKI, Liga Komunista Iraultzailea. Kalean borrokan aritu ginen Franco bota nahian. Ezin izan genuen, ohean hil zen, baina ahaleginak behintzat egin genituen, gure eskuetan zegoen guztia.

Elgoibarrera noiz etorri zinen?

18 urterekin. Lanik ez zegoen Zumaian, mugitu behar, eta Elgoibar tokatu zen. Elgoibarren lan asko zegoen, eta egunero trenean joan eta etorri egiten genuen.

Tailerren batean?

Bai, makina-erremintan egin izan dut lana beti. Tailer mailan beti funtzionatu

izan dugu sindikatuetan. Aurpegia eman dut hor ere bai. Egon naizen leku guztietan beti izan dut mugitzeko beharra. Halako batean tailerreko nagusiak alde egin, eta lantegia laga zuen gure eskuetan. Kooperatiba egin genuen, garai hartan *sociedad anónima laboral* [lan-sozietate anonimoa] esaten zitzaiona. Nik hartu nuen bertako presidentzia langileek hala esan zutelako, baina oso garai zaila izan zen.

Zer gertatu zen?

Ikusi nuen jendea erosi daitekeela. Nik bosterea neukan, momentu hartan presidentea nintzelako, gerentea neuk kontratatu nuen, harreman handia neukan harekin, lan-sozietate anonimoek horrela funtzionatu behar dutelako. Nik banekien nire kontra zegoen jendeak, soldata igotzen banion edo lanpostuz aldatzen banuen,



e'kologikoa,
dena hobetzeko!

Peio Rubio

ZUMAIA, 1948



Bere barruko indarrari segika ibili da Peio Rubio bizitza osoan, besteak beste, militantzia politiko troskistan, tailerrean beste eredu bat bultzatzen, eta nekazaritza ekologikoan buru-belarri. Gaur egun pozik dago egindakoarekin. Nekazaritza ekologikoaren esparruan Biolur elkarte sortu zuen beste batzuekin batera duela 30 urte, bertako lehendakaria ere izan zen. Biolurri buruz gehiago jakin nahi baduzue, ARGIAko *Egonarria* podcastean el-karrizketatu zituzten Rubio bera eta Miriam Arrizabalaga, gaur egungo lehendakaria.

ez zuela arazorik izango, eta nekatu egin nintzen jendaila horrekin. Konkretuki sindikatu batek egiten zuen hori nire kontra, baina barrutik. Nire apustua ez zen hori, nik uste nuen kolektibitateek beste modu batean funtzionatu behar dutela, eta zuri ari zai-zuna kristorenak botatzen tailerrean erosten duzu lau txanponaren truke... Hori ez da niretzat. Momentu bat ailegatu zen non ez zeukan zentzurik: jendeak ez badauka gogorik lan-sozietate anonimo bat ateratzeko, alferrik da. Gakoa indarra da, jendearen gogoa, eta ez zegoen. Ni joan eta gero, handik biz-pahiru urtera, enpresa itxi zuten, eta aukera guztiak genituen aurrera ateratzeko: bagenuen produktua, merkatua, jendea... Genuen dena, baina jendeak funtzionatzen zuen enpresa pribatuen eskemarekin. Eta horrela ezin da, are gutxiago hasierako urteetan: ekonomiko-ki justu zaude, eta ahalegin handiak egin behar dira.

Tailerra utzi aurretik, lan-sozietate anonimoen elkarte bat ere sortu zenuten, ASLE, ekonomia sozialeko enpresak biltzen dituen. ARGIA ere bertako kidea da. Nolatan izan zen hori?

Gero eta lan-sozietate anonimo gehiago zeuden, eta pentsatu genuen interesantea zela elkartzea. Nik beti elkartetan funtzionatu dut, bai nekazaritzan bai leku guztietan. Eta elkarte hori egiteko bizkaitar batzuekin juntatu ginen: enpresa batzuk Ezker-raldekoak, geratu zirenak gu bezala, Eibarreko enpresa bat, Azkoitiko Juaristi, gero beste bat Urretxukoa, oso famatua, greba handi bat egin zutena, Irimo. Elkarte bat muntatu beharra ikusi genuen, eta hortik sortu zen ASLE. Gero elkarteak bere bidea egin du, baina niri enpresak berak ez zidan funtzionatu.

Eta baserrira joan zinen.

Ailegatu zen momentu bat sentitzen nintzela errotonda batean bueltaka, eta hortik irten behar nuela erabaki nuen. Eta bide bat sortu zen. Emaztea zena eta hemengoak ziren, baserrikoak, eta erosi egin genuen. Baina nik neuk ez neukan kriterio bat edo txikitako amets bat baserrira etortzeko. Aukera izan zen baserrira etortzekoa, eta aurrera. Ez nekien letxuga bat sartzen!

Eta beste gauza bat. Esan dizudan bezala, Franco botatzeko borrokan,

sindikatuetan, nahi genuen kristoren iraultza egin, egin gabe guk gurea, pertsonala. Orduan, nirea apustu hori ere bazen. Badakit egoista samarra dela; kolektiboki ere jokatu nuen, baina kolektiboak berak bota ninduen kanpora, komatxo artean, eta joan nintzen egitera nire iraultza pertsonala. Eta hauze izan da nire iraultza.

Dena den baserriaren munduan ere antolatu zara kolektiboki.

Bai, elkarteak muntatu ditut lau edo bost. Biolur, Ekonekazaritza, GILBE ere bai... Beste batzuekin batera, noski, ez dut pentsatzen Jaungoikoa naitzenik.

Esan duzu ez zenekiela letxugak sartzen ere... Nolakoak izan ziren lehen urteak Txillarren?

Baserri zaharra zen. Bota, berriro muntatu, ikasi... Gogorra. Bueno, gogorra. Ez dakit zer den gogorra, ze mendigoizalea Montblanc-era joaten denean gogorra da? Beraiek desiratzten egoten dira joateko. Sufritu? Bai, sufritzen dute, baina kalean ere sufritzen da. Gogorra zer da? Guretzat Everest igotzea izango litzateke kristorena, baina haientzat ez. Barruko indarra da kontua. Kristorenak egiteko gai gara barruko indar hori daukagunean. Nik ez nuen ideiarik ere baserri bat zer zen, eta egin dut baserri zaharra bota, berria egin, ikastaroak egin, hanka sartu eta hanka atera... Ez dago beste biderik gauzak ikasteko.

Gustura ari ziren horretan.

Eskaini zidaten kalera jaistea, postuarekin, eta gehiago irabazten, baina nik nire bizitza hemen neukan jada, apustua egin nuen hemen, eta segitzea erabaki nuen.

Hasieran modu konbentzionalean hasi zinen nekazaritzan. Zergatik pasa zinen gero ekologikora?

Lehendabizi hasi nintzenez sentitu nintzen oso arraro. Arazoak zeudenez, joaten zinen nekazaritza-teknikariarengana eta esaten zizuten bota produktu hau, gero beste hau...

Pestizidak?

Bai. Eta sentitzen nintzen torlojuak egiten ari nintzela, oso mekanikoa balitz bezala, eta nik ez nuen hori bilatzen, horretarako tailerra baneukan. Nik behar nuen beste gauza bat.



Bestetik, eta orain are gehiago, ez dut ulertzen jan behar ditugun gauzei hainbeste pozoi botatzea. Lore bati botatzen badiozu, ba bueno, lorea hor dago, ez duzu jaten, baina barrura sartzen dugun gasolinarentzat, gorputzean sartzen dugun jatekoarentzat hainbeste produktu kimiko erabiltzea, nire buruan ez zen kabitzen. Orduan nekazaritza ekologikoari buruzko lehenengo ikastaroa antolatu zuen EHNEK Tolosan, eta hara joan nintzen.

Jakin-minez?

Ikusi behar nuen zer zen hori, ea zer esaten zuten. Eta horrela hasi nintzen. Han juntatu nintzen beste batzuekin, Tomás Antzuolakoa, Koldo Igeldokoa, Gregorio Amasakoa, eta hortik jo genuen. Batera hasi ginen.

Bi lur elkarrekin sortu zenuten. Zer helbururekin?

Tresna bat zen. Alde batetik, bata besteari lagundu nahi genion, babesa eman, ze ez genekien ezer ez, galduta ginen, Kataluniako eta Andaluziako erreferentzia batzuk bakarrik genituen. Eta, bestalde, gizarteratu behar genuen zer zen nekazaritza ekologikoa. Orain normaldu

egin da, baina ari gara 30 urte atzera egiten. Gaur egun *perroflauta* esaten dietenak geu ginen.

Zer-nolako harremanak izan dituzue administrazioarekin?

Ez dira behin ere kontra joan, ez luke logikarik izango, ze datu guztiak zeuzkaten, Europakoak ere bai, nekazaritza ekologikoa goraka zihoala, baina bai ibili dira beti esku-frenoarekin, beti luzatzen. Guk bilerak izaten genituen bai diputazioarekin bai Jaurlaritzarekin, eta beti esaten genien eskuko frenoarekin zebiltzala. Guk elkarteak sortu baino bi urte lehenago haiek sortu zuten Eusko Label, beren marka famatua. Eta handik bi urtera lau *perroflauta*-k zer eta ekologikoa sortu, oraindik eta gehiago! Hori ez da gauza bat guk beraiekin hizketa egin duguna, baina guk sentsazio hori ateratzen dugu nabarmen.

Eta horrela ailegatu gara hona, esfortzu handiarekin. Kristorena da, ze sartu behar duzu proiektu batean ez daukazu na ideiarik, atera behar duzu gutxienez bizitzeko lain, gero baserriko lana, lan pila bat dena, elkarteko lana, beste pila bat dena. Topera ibili gara denean.

Bizitzeko lain ateratzea aipatu duzu eta... Txillarreko produktuak, gero, Elgoibarren saltzen zenituzten?

Bai, hori ere ikasi behar izan nuen, ez nintzen inoiz aritu azokan saltzen. Hor ere izan nituen nire borrokak, gogoratzen naiz lehenengo urteetan, ohitura zegoen, orain agian galduko zen, baina azken orduan etortzen ziren emakumeak erostera, eta beti regateatzera. Eta nik hori ez nuen onartzen, ezta pentsatu ere. Oiloei bota behar badiet janaria, oiloei botako diet, baina prezio hau da nik jarri dudana, eta ez dut jaitziko. Ez baduzu erosi nahi, ez erosi. Ohitura zela esaten zuten beraiek beti. Ohitura? Kafe bat hartzen duzunean zergatik ez da ohitura, zergatik ez duzu regateatzen? Ohitura txarrak kendu egin behar dira. Prezioa hau da, eta nahi baduzu erosi eta bestela, ez. Beraiek ere biziak ziren, ze azkenengo orduan joaten ziren soberakinak erostera izango balitz bezala. Eta nik hori ikusi nuen segituan, eta erabaki nuen horretara ez jokatzea.

Gero muntatu nuen postutxo bat, aldatu nintzen lekuz, eta gero alabak hartu zuen eta Elgoibarren daukagu denda bat produktu ekologikoekin. Denetik saltzen dugu, bai gure barazkiak bai beste gauza batzuk.

Txillarre baserria oso ezaguna da beste gauza batengatik. Hemen bildu ziren, hitz egiteko, Arnaldo Otegi eta Jesús Egiguren.

Bizitzan gustatzen zaizkit gauza konplikatua, gauza errazek ez didate ezer esaten, aspertu egiten naute. Nik alde batetik Arnaldo ezagutzen nuen, PSOEko bat ere bai, Paco Egea zena, gerente zen lehen aipatu dudana tailer hartan, gaztetatik ezagutu ginen Elgoibarren, eta nire baserria zabaldu nien hizketan egiteko. Bi mundu desberdin, mahai batean, hizketan. Gaur egun oso konplikatua dena, Katalunian ikusi den bezala, ba hemen egin zen. Horrela hasi ginen, eta gero bukatu da bukatu den lekuan.

Ez zeukaten helbururik, soilik hizketan hastera, ez bataik bestea konbentzitu nahian, hori ez da behin ere gertatuko, baizik eta neurri batean ulertzeko, enpatizatzeke. Eta hori gertatu da Arnaldo eta Jesús Egigurenen artean. Zerikus handia dauka zer pertsona juntatu diren. Oso pozgarria izan da, oso aberasgarria. Pozik. Denarekin. Gaur egunean, 75 urterekin, nire paradisua da hau.

Gaur egun zer martxa daramazu?

Batzuetan lan pixka bat egiten dut ortuan,

kanpoko gauzak konpondu, leitu ere gustatzen zait, pelikulak ikusi. Bidaiazeak ez dit irtetzen...

Gaztetan ibili zinen, baina. [Elkarrizketa hasi aurretik egongelako pareta erakutsi digu, munduko hamaika txokotako maskaraz bete]. Bai, Europa dena egin dut motxilaz eta kanpinean.

Orain ez dizu erakartzen? Ez, nire bidaiarik onena hau da: baserria. 30 urte hauetan bidaiatzen nago. Bidaia zoragarria, gainera. Badakit ez didatela ulertzen, baina ez zait batere inporta.

Lasai hiltzeko moduan zaudela esan izan duzu.

Ea, inork ez du nahi, baina testamentu bitala eta denak egin ditut, niri ez jarri hendirik. Horrela nagoen bitartean nahi dut segi bizitzen, ez dudana nahi da adurra dariola ibili, niri aguantatzen ez dakit zein. Orain nago fase batean etekinak jasotzen ari naizena. Neurri batean nik egindako obra da hau, eta



horrek ematen dit bizipoza eta egiten dit gozatzea irten beharrik gabe. Pelikulak ikustera joaten naiz, jazz festibalera ere joaten naiz urtero, gauza puntual batzuetara joatea gustatzen zait, bestela ez. Sentitzen dut, baina ni jende gutxikoa naiz: mahai bat, lau pertsona on, berriketa eder bat eta hor egon naiteke 14 ordu; orain, jende asko dagoen lekuan... Manifestazio batzuetara joan behar da eta egiten dut, baina hainbeste jende

dagoen lekuetan ez nago lasai nirekin. Jazz festibalean, adibidez, nik ez dut musikaz ulertzen, gustatzen zait ala ez, batzuetan asmatzen dut eta ederki, eta beste batzuetan sekulako marroiak irentsi ditut. Bizitza horrelakoa da. Zinean ere bai, hamar pelikula gutxienez ikusi behar dituzu bat dezentea ikusteko. Ba ikusten dut jendea joaten dela jazzaldira edo zinemara eta denak mobilarekin: ostia, laga mobila eta gozatu momentua, horretara joan zarete eta! Ez dut ulertzen hori. Neurri horretan ez dut ezagutzen gizartea.

Teknologia berriek eta sistema honek egin digu, alde batetik, hustu barrutik, eta bete gauza material pila batekin. Aldiz, sentimenduak, pasioak, horrek gauzak hustuta dauzkagu, ez dira existitzen, edo oso gutxi existitzen dira, aldrebestuta. Aldiz, daukagu kotxea, bidaiak hona eta hara, mobilak, pantaila ez dakit nolakoa... Kapaz gara ordenagailuz munduaren beste aldean dagoen batekin kontaktatzeko eta goian bizi denari egun on ere ez esateko. Zerbait ez dabil ondo. ●

BI EGUAZTENEAN BEHIN, 18:00N ZUZENEKO SAIOA, BILBO HIRIA IRRATIAN

LANAREN EKONOMIA

7. DENBORALDIA

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria Irratia
www.bilbohira.eus

EL SALTO
RADIO

ARGIA

HORDAGO



Barne faktoreak



HIRUKI LARROSA

Uda urrun geratzen bazaigu ere, gu are atzerago goaz. Uda hasierara. Zein ederrak diren hasierak, e? Are ederragoak, interesa pizteaz gain, hausnarketarako eta artikulaziorako gune baten parte izanez hasita. Ekainaren 26 eta 27an, II. Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen Kongresua izan zen, Igeldon. Bi egunez, hezkidetzaren inguruan korapilatu ginen hainbat eta hainbat. Dinamiken aldetik oso emankorra izan zen. Zer esanik ez gaien aldetik: herri hezkidetzailleak, autozaintza eta zaintza komunitarioa, lodifobia, arte hezkidetzaillea, gizontasuna eta gizon gazteak, bazterretako erotika... Bi hitzaldi marko ere eman ziren. Pastora Filigranak, besteak beste, feminista, ijitoen giza eskubideen aldeko ekintzailea, lan arloko abokatu eta sindikalista denak, interseksionalitatea izan zuen hizpide. Mireia Delgado pedagogo feminista, ipuin-kontalari eta irakasleak, aldiz, pedagogia feminista izan zuen mintzagai *Hetero araua plazerez lehertu!* hitzaldian.

Azken hitzaldi horrek arreta berezia piztu zigun, autokritikarako bidea zabaltzeko baitzigun. Azken urteetan kezka iturri izaten ari zaizkigu hainbat eta hainbat eskoletatik jasotzen ari garenak: gazteen artean giroa gaiztotu dela, berdintasun faltsuaren diskurtsoak gazteen ahoak hartu dituela, berdintasunaren gaia lantzerakoan gazteek erakusten duten nekea, gaia landuz sortzen diren “generoen arteko gerrak”... Egoeraren analisisa egiteko, sektorean lanean ga-

Ezin da hezitzaileen edo gazteen aldartea gelako dinamiketarik guztiz banatu, ezin dira gu guztion artean dauden boterekeriazko hartu emanak lanen garapenetik askatu

biltzan hainbat elkarte eta kooperatiba elkartu gara azken hilabeteetan. Eta ohartu gara, kanpo faktoreez gain (sare sozial digitaletan gazteei zuzentzen zaizkien diskurtso biktimistak, ultraeskuinak jendartean ezarri dituen pentsamendu marko hainbat...), badaudela hainbat barne faktore egoera samurtu ez dutenak.

Solastatu genuen hezkuntza formalean zerbitzugintza dinamikorik detektatzen ari ginela, eta dinamikorik hezkuntzak izan behar lukeen izaera komunitario eta jarraitutik aldentzen direla; ohartu ere, dinamika polarizatzaileek irakasleek askotan gaiari heltzeko tresna falta izatea sorrarazten zutela; hitz egin genuen gazteak feminismoaren gaira erakartzen ditugunean, gaiaren konplexutasunean sakontzeko denbora faltagatik batez ere, sloganek nahi baino leku handiagoa dutela. Eta baita esku-hartzeetan dihardugunon ezinegun eta

minek batzuetan leku hartzen dutela ere. Filigranak dioen moduan, “guztia etengabe eta elkarloturik gertatzen da”, hau da, ezin da hezitzaileen edo gazteen aldartea gelako dinamiketarik guztiz banatu, ezin dira gu guztion artean dauden boterekeriazko hartu emanak bakoitzaren lanen garapenetik askatu, edota ezin da patriarkatua kapitalismo kolonialik gabe ulertu, dena batera eta aldi berean gertatzen baita.


Mireia Delgadok, gainezka egin ez genezan, hezitzaile zein irakasleontzako hainbat tresna eskaini zizkigun: bell hooksen *Transgresioa Irakasgai* (Katakak, 2023) edo Paulo Freireren *Pedagogía de la autonomía* (Siglo Veintiuno, 2008) liburuak gomendatu zizkigun, baina, batez ere, gure hezitzaile lekua- ren behaketan lagungarri izan zitzaizkigun galdera zaparrada bota zigun. Horietan, beti presente eta beti ahantzi dugunetako bat: *nola heldu naiz ni honaino?* Hezitzaile den ororen lanak duen izaera politikoak duen agerikotasunetik harago, gure hazkuntza prozesuan konzientzia kritikoa garatzeko baliagarriak izan zaizkigun (eta noski, lagungarriak izan ez diren) dinamikorik pentsatzeko gonbidapena egin zigun. Hor, gure lanaren garapenean lagun dezakeen pista asko dago.

Gomendagarria, oso, jardunaldien harira sortu podcastak entzutea (labur.eus/HLK847). Bakoitzaren motxilak zerez osatuak dauden begira jarriz jendartea iraultzen jarraitzeko. ●

Herri bat, bere lurraldean, libre



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Mundu mailako balizko bakearen abiapuntua, lelo horrek laburbiltzen duen printzipioaren errespetuan datza, edo gauza bera dena, herrien independentziarenean. Salbuespenik gabe, kontsigna horren arabera bizitzea izaten da munduko nazio guztien nahia; independentziari eustea jadanik burujabe direnen kasuan, eta independentzia berreskuratzea, galtzeko zoritxarra izan dutenenean. Eta horixe bilakatzen dute, noski, beren politikaren lehen helburua. Hori gabe ez baitago deus ere.

Askatasun funtsezkoaren printzipio hori da autodeterminazio eskubideak babesten duena, edo herriei egiten dien aitortza, horrelako zerbait adieraziz bezala: eskubidea duzu zure lurraldean libre bizitzeko, kanpoko potentzia atzeritarren injerentziarik gabe, inbasiorik gabe, zeurearen jabe zarela, zeure ondarea kudeatuz, zeure erabakiak hartuz, zeure egunerokoa antolatuz eta etorkizuna eraikiz.

Baina noski, hori babesten duen eskubide bat formulatu behar izateak, herrien funtsezko askatasun hori arriskuan jartzen duen mehatxu bat badagoela ematen du aditzera, existitu egiten dela herrien integritatearen kontrako delitu

bat, inperialismoarena, alegia, zeinaren-gatik beharrezko egiten den nazioen arteko politika arautzea, elkarren errespetua zein printzipiok erregulatuko duten definitzea.

Autodeterminazioaren eskubidea hain dago inperialismoaren existentziari lotuta, non ezin diren bata bestea gabe ulertu. Jasandako delitu inperialista da nazio baten autodeterminazio eskubidea aktibatzen duena, eta era berean, autodeterminazioa aldarrikatze hutsa, inperialismoaren salaketa implizitua da, beti. Eta arrazoi berengatik, independentzia errekonstruzioa da autodeterminazio eskubidea gauzatzeak nazio batentzat eduki dezakeen ondorio, emaitza edo esanahi bakarra: altxatu dadila nire lurraldeetatik okupazio-erregimena, eta erretiratu daitezela indar okupatzaileak.

Munduko azken gertakariak gaurkotetasunaren lehen lerroa ekarri dute inperialismoaren existentzia, bere errealitatearen bertsiorik gordinena eta krudelena erakutsiz. Baina inperialismoaren salaketa bere osotasunean egin behar da, ez bakarrik basakeriak neurri gehiegizkoa hartu duela sentitzen dugunean, baizik eta pairatzen duten herri guztien askapenaren alde eginez, estatu menderatzaileetako gobernuak behartuz

nazioarteko araudia betetzera, duintasuna berreskura dezaten nazioek, eta horiekin batera, gizateria osoak.

Euskal Herriak aspalditik ezagutzen du inperialismoaren errealitatea, eta pairatzen segitzen du egun, ustezko bake giro honetan kamuflatuta. Gu herri menderatu zaharra gara, aspaldikoak direlako gure lurraldeen inbasioa, eta gure estatuaren konkista, eta horregatik oso normalizatua dugu menderakuntza egoera, jadanik inperialismo zantzurik ez ikusteraino Espainiak eta Frantziak gurean duten aparatuko politikoaren presentzia hutsean.

Baina ez dute geuretik alde egin. Kontua da kolonizazio eta asimilazio baketsuaren garaia dituztela orain gure menderatzaileek, okupazioa burututa eta gure estatuaren anexioa gauzatuta, Euskal Herriaren suntsipen-proiektuaren beste fase bati ekin ahal izan diotela.

Sinesgarriak izango bagara, etxetik bertatik egin behar dugu inperialismoaren salaketa, geure estatu propioa baiezkatuz, eta erresistentzia mugimendu nazionala antolatuz, zeinera ongi etorria izango baita indar demokratiko oro, autodeterminazioa aldarri bakar. Horixe da gizateriaren historiari euskaldunok egin diezaiokogun ekarpenik handiena. ●

Bolbora, hanburgesak eta Coca Colaren jaunak



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA ETA
SORTZAILEA

ruñeko Katu tabernan oihuka kantatzen zen, Malincheren madarikazio kantu famatua: *"Y en ese error, entregamos la grandeza del pasado, y en ese error nos quedamos trescientos años esclavos"*.

Hego Amerikan –bereziki Kolonbianjaioa izatea ez da batere eroso, tamalez. Oinak babaz josiak eta zapata estuak jantzita ibiltzea bezalako zerbait dela esango nuke. Batez ere, hemengo abizenak izan ezean, adibidez: Gabiria, Ospina, Mendieta, Etxandia, Garai, Aristizabal...

–Amerikako aurkikuntzaren eguna!
–Ez zen aurkikuntza izan! –Lehenagotik ere baginen! –Bi kulturen arteko topaketa!
–Ez, genozidioa izan zen! –Arrazaren eguna!
–Ez, ez dugu ezer ospatzeko! –Bai, bai, jakina! Erresistentziaren eguna!
–Egia, gure herriei duintasuna eman behar diegu!
–Bai, herri indigenen erresistentziaren eguna!

1492ko urriaren 12an hasi zen kolonialismoaren prozesua Hego Amerikan, espainolek eta euskaldunek bolbora eta anbizio nahia eraman zituzten hara. Indigenek lumak, geziak eta urrea jarri zituzten. Ondorioa, soberan ezaguna. Mendeak pasatu dira, eta nahiz eta genozidioa duintzeko eta aldarrikatzeko hitzak berresmatzen ditugun, trauma trauma da, eta traumaren arrastoek bahituta gaude oraindik. Baina denak berdin jarraitzen du. Helburu zaharrak lortzeko modu berriak. Dominazioak jarraitzen du, yan-

kien menpe gaude, europarren menpe gaude, eta kontrol militarra, politikoa, ekonomikoa eta erlijiosoa mantentzeko prozesu sistematikoak aurrera egiten du gaur egun ere. Behin gure hizkuntzak ahaztuta, argiak kendu zizkiguten, eta bakardadean itsu-itsuka, erreferente guztiak galdu genituen, horietatik gure unibertso kulturala eta emozionala salbatzeko aukerekin batera.

XXI. mendean oraindik ez dakigu zer den latinoamerikarra izatea. Ez zaigu iritsi gure arbasoen pentsamenduaren logika gaurko balioei zentzu zabala emateko. Zer sistema politiko-ekonomiko, sexual erotiko-afektibo garatu nahi dugu? Nola antolatu nahi dugu geure burua? Nolako harremanak izan behar ditugu animaliekin eta lurrarekin? Gure arbasoen ondarririk gabe, ezin gara hausnarketa zintzo batean murgildu gure errealitatea birpentsatzeko eta berreraikitzeke. Kolonialismoak aurrera jarraitzen du metastasia eragin digun minbizia balitz bezala.

Kolonialismoa ez da garai bateko kontua, izan ere, oinarrian ditu esklabotza eta menderakuntza, gure egungo sistema elikatzen duten balioak, hain zuzen ere. Horrela garatu zituzten estatu modernoak jaun kolonizatzaileek. Horrela garatu zuen Europak Berpizkundea Italian eta Entziklopedismoa Frantzian, Hego Amerikako duintasuna, urrea, eta odola ustiatuta. ●

Aholku permanenteki pertinentea



**CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA**

rla batean dagoen etxe batean nago, itzulpengintza lantegi batean. Leihoak itsasora ematen du eta gauez ezer ez da entzuten itsasadar batean gaudelako, ez itsaso zabalean. Isiltasunak esnatu nau eta sabaia argi etenkari batek argiztatzeko duela ohartu naiz. Ez dago itsasargirik gertu. Ez dakit nondik heldu den, baina niri oroitarazi dit gurasoen etxean bizi nintzeneko garaia. Guardia Zibilek Patrolak gauez ibiltzen ziren gure etxe inguruko pistetatik, eta, tarteka, haien fokuetako argiak leihoetatik sartzen ziren.

Hemen gaude esateko beren modua zen. Memoriak jauzi egin dit berriro eta Unai Maleskiren poemaren hasiera ekarri dit burutara: *Aholku permanenteki pertinentea*. "Karriken alde bietara begiratzen / irakatsi zigun amak / arrebari eta bioi. / Kuartelen inguruak saihesten / erakutsi zigun, / badaezpada ere." Kuarteleatik gertu bizi ginen gu, eta gurasoek ez ziguten etxera oinez joaten uzten. Ahaztuta nuen beldur hura. Edo beharbada umetako beldurrak ez dira inoiz ahazten. Helduarokoak ere ez, noski. ●

Turismo jasangarria?



EIHAR EGAÑA
BIZILAGUNEKIN
PLATAFORMAKO KIDEA

Azken urteotan *turismo jasangarriaz* hitz egiten ari zaizkigu turismoa sustatzen eta turismoaren hazkundera ospatzen ohitutako erakunde publikoak eta hedabideak. Baina bulztatu nahi duten turismo hori, benetan hain jasangarria al da?

Batetik bestera nola mugitzen garen hartu behar dugu kontuan, lehenik. Donostiatik 100 kilometroko erradioan bost aireportu dauzkagu; eta turismo jasangarria sustatzen omen dutenek ospatu egiten dute munduko karbono dioxido isurien sortzaile nagusi diren hegaldiak ugaritzea. Gainera, azken urteetan Hondarribiko aireportuan luxuzko jetak biderkatu dira; aberatsenei gehiago eta gehiegi kutsatzeko eskubidea errotik ukatu beharko geniekeenean. Bestetik kruzeroak ditugu. Aire, itsasoa eta bere zabor produkzio demasarekin kutsatzeaz gain, turismo eredu estraktiboena dakarte. Ongi dakite Venezian, Bartzelonan, Marseillan eta Lisboan, besteak beste, horrelakoen aurka borrokatzen duten lagunek. Hemen, ordea, Pasaia eta Donostiara gurtzaontziak erakarri nahian dabilta ustezko turismo jasangarriaren defendatzaileak.

Baina ez da mugikortasuna soilik. Donostiako Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak *Parte zaharra, parte zaborra* izenburuko bideoa zabaldu du. Auzo horretan ohiko bilakatu den zabor pilaketa

bezala, kaleen okupazioa, merkataritza eskaintzaren urritzea, ostalaritza eredu esplotatzailearen ugaritzea... jasangaitz bihurtzen ari dira auzotarren bizimodua. Haur, gazte, heldu eta adinekoek denetariko oztupoak aurkitzen dituzte euren auzoan bizimodu arrunta eraman ahal izateko. Horregatik, asko izan dira kanporatuak azken urteetan.

Donostian dauden pisu turistikoek, atarrietan bizilagunekin elkarbizitzan eragin ditzaketen molestiez gain, etxebizitzaren prezioaren gorakada zuzena eragiten dute. Azken urteetan ireki diren hotel berriek ere, esaterako, alokairuen prezioak igoarazi dituzte. Milaka donostiar hiritik kanporatzen dituen etxebizitza larrialdia sortzen duen turismo eredia jasangarria da? Donostiako Udalak, pisu turistikoekin egin zuen moduan, hotelekin beste partxe bat jarri du. Orain Donostiako zona batzuetan hotelak ezingo dira ireki, baina salbuespenak uzten dira eraikin motaren arabera. Gainera, kontuan izan behar da badaudela oraindik lizentzia duten baina irekitzera iritsi ez diren hotel morodoa. Horien inpaktua ere ikusteke dugu.

Aurrekoak gure hiriaren turistifikazioaren adibideak dira. Turismo jasangarriaren ideia salduz sortzen dituzten saihebidetako, hazkunderarekin jarraitzeko. Aldaketa estrukturalik ezean hazkunderaren bidetik jarraituko dute erakunde publikoek eta industriak. Donostia mo-

mentu kritiko batera iritsi da: zirt edo zart, aldaketa bat eman behar da hiri ereduari. Bizilagunekin plataformatik behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu donostiarren bizi baldintzak erdigunean jarri eta desazkunde turistikoaren norabidean jarri behar dela hiria. Orain urrun dagoela dirudien arren, gure esku dago bizilagunen kontzientziak eta aldaketarako ahalmena.

Desazkunde turistikorako proposamenak egin ditugu azken urteetan. Pisu turistikoak progresiboki desagertu daitezten, besteak beste. Gainera, auzo bizitzaren ahultzeari eta auzotarrak Donostiatik kanpora joan beharrari erantzun behar zaio lehenetsunez. Deszentralizazioa, desestazionalizazioa eta tasa turistikoa bezalako soluzioek ez digute balio. Turistifikazioa ez eteteko eta turismoaren hazkunderaren atea zabalik mantentzeko aitzakiak dira; *turismo jasangarria* kontzeptu tranpatiarren azpian ezkutatzen dituztenak. Hazten jarraitzea ez da jasangarria.

Hiri eredia aldatzeko, donostiarrok asko dugu egiteko. Gure auzo eta hirian, hainbat eragilek borroka martxan dituzte. Horiek dira gure hiriko erresistentzia guneak. Borroka txiki horiek erakusten digute eraldatu daitekeela, erresistentziatik abiatu arren, alternatibak badaudela. Bestetik, borroka horiek berak auzo-kohesioa eta elkartasuna lantzeko ezinbesteko palankak dira. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com

ARGIA EGUTEGIA 2024

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5€
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

Memoria ahuldu egiten da lantzen ez bada. Hala zioen Zizeronek eta arrazoi horregatik, bosgarren urtez ARGIAko egutegi honetan efemeride historikoak aurkituko dituzu egunero orrien atzeko aldeetan. Hedabide hegemonikoek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira gehienak, argi esateko. Urteurren borobilez kargatuta datorkigu urtea.

Orrien aurreko aldeetan, data argi eta garbi, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa, eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera- 2024 on!

Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



ZAINZA-KAMEREREK EZKUTATZEN DUTENA

Gasteizen, beste hiri batzuetan bezala, zaintza-kamera berriak jarri nahi dituzte, baina ez digute horien benetako ezaugarriak kontatzen. Are larriagoa da ez dizkigutela azaltzen benetako arazoak zein diren, ezta kamerak nori egiten dioten mesede ere. Gaia orokorrean aztertuko dugu, Gasteizko kasu zehatzetik abiatuta. Hausnarketa sustatu nahi dugu, Poliziarik eta kamerarik gabe gatazkei aurre egiteko.

 ESTITXU MARTÍNEZ DE GUEVARA



railean, Gasteizko Segurtasuneko zinegotzi Iñaki Gurtubaik (EAJ) iragarri zuen bideozaintzako hamazazpi kamera berri jarriko dituztela Alde Zaharrean eta Zabalgunean. "Gailu teknologiko aurreratuak dira, eta egun erabiltzen diren kamerek baino prestazio hobekak dituzte, bereizmen handiagoa dutelako edo irudiaren azterketa adimendun hobeak egiten dutelako. Lehen urratsa da delituen prebentzio eta ikerketarako bideo-zaintza funtsezko tresna gisa erabiltzeko", diote Gasteizko Udalaren webgunean. Datozen urteetan 100 kamera berri jarri nahi ditu Gurtubaik, Iruñean jada ezarri dituzten 300 kameraren "ereduari" jarraiki.

Neurria ez da segurtasun arduradun berriaren burutazio bat. 2018ko martxoan Gustavo Antépara PPko zinegotziak aurkeztu zuen Alde Zaharreko "puntu estrategikoetan" hamalau zaintza-kamera instalatzeko proposamena. Baina kamera berriak instalatzeko lehiaketa publikoa abiatu zuena PSEko Marian Gutiérrez izan zen, aurreko legegintzaldiko Segurtasun zinegotzia. Hurrengo datuak eman zituen Gutiérrezek 2023ko urtarrileko Segurtasun Batzordean: "Udaltzaingoak baditu kamerak Alde Zaharrean eta Zabalgunean, zehazki 29. 29 horiek prestazio handiagoko hamazazpi berrirekin ordezkatu nahi ditugu, eta haien kokapena birdefinitu".

SEGURTASUN FALTA FALTSUA ETA KAMERA ERABILEZINAK

Bistakoa dirudi hiru udal-talde horien apustua zaintza-kameren alde. Ez du ematen segurtasun eza denik arrazoia, Gutiérrezek Gasteiz "hiri segurua" dela adierazi baitzuen batzorde berean. Hilabete geroago, PSEko orduko zinegotzi eta egungo alkate Maider Etxebarriak hurrengo adierazpenak egin zizkion Gasteizhoy hedabideari: "EAEko hiru hiriburuetako delitu-tasarik baxuena du, baita Espainiako hiriburuen artean hiru baxuenetakoa ere. Segurtasun handia dago kalean".

Galdera argia da: Gasteiz segurua bada, zein da 100 kamera jarri nahi izateko arrazoia? Kontuan hartuta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (AEPD gaztelaniako sigletan) dioena espazio publikoetan kamera finkoak ezartzeaz: "Horiek erabiltzeak exijitzen du herritarren segurtasunerako arrazoizko arrisku bat egotea". Horrelako mekanismoek pertsonen eskubideei eragiten diete: 2004an Gasteizko Sindikoa-Herritarren

Galdera argia da: Gasteiz segurua bada, zein da 100 kamera jarri nahi izateko arrazoia?

Defendatzailea Alde Zaharreko Barrenkale kalean kamerak jartzearen aurka azaldu zen, "ez baitago proportzionaltasunik mekanismo horien bidez bete litezkeen helburuen artean, eta, bestalde, sakrifikatuko lirakeen beste eskubide batzuen artean. Halaber, ez dago egokitzapenik kostuaren eta eraginkortasunaren artean".

Herritarren Defendatzaileak, agian, bazuen munduko beste leku batzuetan bideo-zaintzarako kamerek lortutako emaitzen berri. Torontoko Polizia Zerbitzuak, esaterako, azterketa egin zuen 2006an, segurtasun komunitarioa gartzeko kameren erabileraz: "Emaitzak ez ziren izan asegarriak. Telebista-zirkuitu itxiko (TBZI) sistemek ez dituzte arau-hausleak uxatzen; kontrara, segurtasun-sentsazio faltsua sustatzen dute. Kritika asko egin ziren bideo-zaintza arazoaren jatorria(k) jorratzen ez dituen 'irtenbide adabakia' dela argudiatuta. Aitzitik, baliabideak komunitatea indartzeko programetara bideratu beharko lirakeke".

Ikerketa hori ez da kasu isolatua. 2008an Kriminalitatea Prebenitzeko Nazioarteko Zentroak argitaratu zuen Bideo-zaintzaren balorazioa, krimenak argitu, prebenitu eta murrizteko, manei eta segurtasun erreminta eraginkor gisa lana: "Hainbat ikertzaileren arabera, TBZIak ez du murrizten segurtasunik ezaren sentsazioa, eta horrek frogatzen du ez dela eraginkorra krimenak prebenitzeko, murrizteko eta ebazteko tresna gisa. Jason Dittonek (2000) dioenez, TBZIko kamerek ez dute jendea segurua sentiarazten; beldur faltsua sortzen dute, eta hori areagotu egiten da hedabideen jarduera biziaren ondorioz.

Gainera, kamerak herritarra (errugabea) seinalatzen du, ez kriminala, eta espazio publikoetan etengabeko beldurra ezartzen du". Hau da, zalantzan jartzen dute garai hartako lehen alkateorde eta gaur egungo alkate Maider Etxebarriak 2023ko urtarrilean adierazitakoa kameraren inguruan: "Ahalegin handia egiten ari gara ditugun bitartekoak eguneratzeko; lana erraztuko duten eta polizia-lana eraginkorragoa egingo duten sistema berriak ezartzen". Ez bada, noski, Poliziaren lana ez dela delituak prebenitzea, herritarrak kontrolatzea baizik. Zeregin horretan kamerek lana errazten diete, baina herritarrentzat altua da prezioa.

ESKUBIDEEN GALERA LARRIAK

Kamerak jartzearen etika zalantzarria eta eskubideetan duten eragina da beren defendatzaileek ezkututzen duten lehen gaia. Baina hori da hain zuzen ere, duen garrantziagatik, politikako edozein profesionalak alde aurretik aztertu beharko lukeena, eta Gasteizen kamerak jartzea babesten duten udal-taldeek badiudi ez dutela egin.

"Kontua ez da herritarren segurtasunari buruzko arazoak ukatzea, baizik eta modu lasaian hausnartzea neurri garestiak ezartzeari buruz. Eraginkorrak direnik ez dute argi erakutsi eta, nolahi ere, oinarrizko eskubideei eragiten diete. "Eraginkortasunari dagokionez, nahi ez diren neurrien artean daude oinarrizko eskubideekiko eragin larria, segurtasunik ezaren pertzepzioa areagotzea -bereziki epe ertainean edo luzean-, axolagabekeria soziala eta leku eta kolektibo jakin batzuk estigmatizatzeak arriskua", dio Gema Varona Martínez Zigor Zuzenbideko doktorea eta kriminologoaren 2012ko ikerketa batek.

Talde politikoen hasieratik planteatu beharko lituzketen galdera eta gai pedagogiko batzuk gehitu ditu Varonak: "Gure gazteak, bereziki, jarrera kritikoan heztea, mota guztietako zaintza-neurrien naturalizazioari aurre egin diezaioten. Lehenik eta behin, modu lasai, arrazoizko eta zientifikoa, honako gai hauek baloratu ditzaten: etikoki baliozkoa al da? Eskubideak errespetatzen al dira? Zein dira kontrol-modu horien aldeko hautua egitearen ondorioak? Zein da kostu ekonomikoa eta humanoa? Jasangarria al da bideo-zaintza tokiko segurtasun politika gisa? Irrealak al dira herritarren espektatibak? Zein da kamerak kontrolatzen dituzten pertsonen formazioa?".



AEPDak horri buruz dioena ere kontsulta dezakete alderdiek: "Litekeena bada tratamendu batek, bereziki teknologia berriak erabiltzen baditu, arrisku handia ekartzea eskubide eta askatasunei, arduradunak, tratamenduaren aurretik, inpaktuaren ebaluazioa egingo du". AEPDren arabera, "alternatibarik ote dagoen ebaluatu behar da; kamera kopurua kontrolatu; baita kamera mota ere, ez baita gauza bera kamera finko baten bidez irudiak hartzea edo 'domo' izenekoen bidez, 360 graduko grabazioak ahalbidetzen baitituzte". Azken horiek dira, hain zuzen, Gasteizen instalatuko direnak.

KAMEREN INGURUAN EZKUTATZEN DIGUTENA

Gasteizko kameren kasuan kontu zehatz batzuk ezkututzen dizkigute. Edo, bestela, zuzenean gezurrak esaten dizkigute. Segurtasun Batzordearen 2023ko urtarrileko bileran, orduko PSEko Segurtasun zinegotzi Gutiérrezek honakoa adierazi zuen: "Uste dut aurpegiaren azterketa ez dagoela baimenduta European, eta, beraz, hemen ez da aurpegiaren errekonozimendurik edo antzekorik

"Telebista Zirkuito Itxiak ez du murrizten segurtasunik ezaren sententzia, eta horrek frogatzen du ez dela eraginkorra krimenak prebenitzeko"

Kriminalitatea Prebenitzeko Nazioarteko Zentroa

izango". Hilabete batzuk geroago, Segurtasun zinegotzi berri Gurtubaik (EAJ) esan zuen kamerak ez dutela "aurpegi-azterketa egiteko eta antzeko aukerarik ematen".

Hasteko, deigarria da gaiaren arduradun batek esatea aurpegi-azterketa ez dagoela baimenduta European, informazioak argitaratu baitira nola onartu eta erabiltzen ari den Europako 32 estatu-

tan, tartean Espainian eta Frantzian. Baina larriagoa da bigarren gaia: Gasteizen instalatu beharreko kamerak aurpegia ezagutzeko aukerarik ematen ez dutela baieztatzea. Gezurra da, eta biek dakite. Besteak beste, udalaren baldintza tekniko zehatzen agirian bertan ondorengoa jasota dagoelako: "Eskuragarri egongo diren bilaketa-erraztasunen artean daude: (...) 9. Aurpegi-azterketa bidezko bilaketa." Engainatu ez ezik, oinarritzko eztabaida publikoa saihestu nahi dute; izan ere, Monica Mena kazetariak esan moduan, "teknologia horren hedapen orokortuak gai garrantzitsuak planteatzen ditu pribatutasunean dituen ondorioei buruz, eta gobernu nazional asko eta bertako herritarrak daude zaintza masiboaren etikari eta legezkotasunari buruzko mundu mailako eztabaidaren erdian".

Larria da, halaber, ez jakinaraztea instalatu behar dituzten kamerak soina jasotzeko gaitasuna dutela. Aipatu dugun udalaren agirian ere jasota dago: "Kamerak tipologia honetakoak izan beharko dute: audio sarrera eta irteera dituztenak". Horregatik, kameretako operadore postuak bere funtzioen ar-

tean honako gaitasun hau izan behar du: "Bideo-iturri bat mapa batetik leiho batera arrastatzea eta askatzea ahalbidetuko du, audioak eta bideoak gainbegiratzeko, grabatuak edo denbora errealean". Bereziki larria da, AEPDaren *Guía sobre el uso de videocámaras para seguridad y otras finalidades* (Segurtasunerako eta beste helburu batzuetarako bideokamerak erabiltzeari buruzko gidaliburua) txostenak zehazten baitu: "Ezin izango dira erabili pertsonen intimitateari zuzenean eta modu larrian eragiten zaionean, ezta izaera pribatuko elkarrizketak grabatzeko ere".

Eta oraindik ere zalantzarik bada kamera horiek intimitateari egiten dioten eraso larriaz, gehitu dezagun Iruñeko udaltzain batek kamera mota horri buruz Eitb-ri eginiko iruzkina (gogoratu Iruñean instalatuta daudela jada): "Ikarragarria da, bilatzen ari zaren pertsonaren sudurraren ileak ere ikusten dira".

INSTALATZEKO EGIAZKO ARRAZOIETAKO BATZUK

Kamerak ez badira baliagarriak segurtasuna bermatzeko eta, gainera, herritarron eskubide garrantzitsuen aurka egiten badute, horiek ezartzeko benetako arrazoiei buruz hausnartu beharrean gaude. Seguru asko ez ditugu guztiak ezagutuko, baina batzuk aipa ditzakegu, orokorrak zein partikularki Gasteizi dagozkionak.

Orokorren artean, Gemma Galdón Clavellek eman dizkigu batzuk. Galdón aditua da zelatatzean, teknologiaren eragin sozial, legal eta etikoan, segurtasun-politiketan eta polizia-jardunean, besteak beste, eta hala dio: "Badirudi bideozaintzaren zergatia ez dagoela horrenbeste gizarte beldurtu baten beharretan, baizik eta esparru instituzional deslegitimatatu baten eta errudunak bilatzen dituen gizarte baten urgentziak irekitzen dituen aukera-leihoetan. Badirudi bideozaintzaren eraginkortasunik ezaren aurrean arduradun politikoei eta operadoreek agertzen duten itxurazko gorreriak ezkutatzen duela hiri-gobernantzan, arriskuaren kontzeptualizazioan eta segurtasunik ezaren pertzepzio publikoan izan diren eraldaketen konstelazioa. Berdin dio delinkuentzia murrizten duen edo segurtasun-sentsazioa hobetzen duen: bideozaintza gailentzen da, antza, berehalako irtenbidea delako, inplementatzen erraza delako, aurkakotasun txikia sor dezakeenez eta, hortaz, 'funtzionatzen' duelako, baita



“Etikoki baliozkoa al da? Eskubideak errespetatzen al dira? Zein dira kontrol-modu horien aldeko hautua egitearen ondorioak?”

Gema Varona Martínez

segurtasunik eza kudeatzeko tresna gisa alferrikakoa izanik ere”. Soilik falta zaio gehitzea: eta boto asko ematen du.

Bada aitortu gabeko beste arrazoi bat: gentrifikazio-prozesuetan erabili ohi dela. Honela jaso du *Metropole*. *Seguridad y policía en la ciudad neoliberal* liburuak: "Auzoak 'biziberritzearekin eta dinamizatzarekin' lotutako prozesu politikoetan, espazio publikoaren eredu berriak sortzean (arlotzietatik ere higienizatuak), 'udal-agintariek bideozaintza ezartzeko erabakia' aukera funtzionaltzat hartu behar da". Gasteizen,



zehazki, turismoari eta merkataritzari lotutako interesa gehitu zaio. "Gasteizek adimen artifiziala erabiliko du turistak erakarri eta fidelizatzeko. Arabako hiriburuak pasoko sentsoreak eta azken belaunaldiko kamerak jarriko ditu bisitarien gustuak ezagutzeko", argitaratu zuen *El Correo*-k irailaren 29an. "Erabaki estrategikoak hobeto hartzeko informazioa biltzea da helburua", adierazi zuen albistean Turismo Proiektuen Udal Zerbitzuko buruak.

Gasteizi eragiten dioten arrazoi partikularren artean bi daude, ziur asko beste hiri batzuetan gertatzen denaren aldean oso ezberdinak ez direnak. Biek dute zerikusia kameraren instalaziotik onura ateratzen dutenekin. Lehenik eta behin, enpresa esleipenduna. Ahoztar Zelaietak argitaratzen dituen ikerketakazetaritzako lan bikainen eragina izango da, baina Gasteizkoak talde antimilitaristan ikusi genuenean lehiaketara

Gasteizen instalatu beharreko kamerek aurpegia ezagutzeko aukerarik ematen ez dutela baieztatu dute arduradun politikoek. Gezurra da, eta badakite

aurkeztu ziren zazpi enpresen zerrenda, porra batean parte hartu izan bagenu nori esleituko zioten asmatzeko, Ingeniería de Sistemas y Telemando SAU enpresaren (INSITEL) aldeko apustua egingo genuke (nahiz eta lehiaketaren

alde publikoan eskaintzarik onena ez aurkeztu). Eta porra irabaziko genuke. Gure apustuaren arrazoia sinplea da: 2018tik Bizkaiko enpresa horren zuzendaria (linkedin profilaren arabera) Sabin Anuzita Pomposo da, Bilboko alkate Iñaki Azkunaren bi legealditan EAJko zinegotzi izandakoa eta, Ahoztarrek adierazi bezala, EAJren 65 ate birakariaren kasuetako bat. Enpresa horren bezeroen artean daude Bilboko Portu Agintaritzak, Euskal Trenbide Sarea, Bilbao Exhibition Center, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritzak bera.


Gustavo Antépara PPko zinegotzi ohia ere kamerak ondo etorriko zaizkiolakoan gaude (testu honen hasieran ikusi dugunez, instalazioaren lehen proposamen publikoa berak egin zuen). Izan ere, kamerak adostutako kokalekuetan jartzen badira (bat Xabierko San Frantziskoren arrapala mekanikoetan;

hiru La Soledadeko arrapaletan; bi San Frantziskoko aldapan; bi Mateo Moran; lau Plaza Berrian; bi udaletxerako sarbidean eta hiru Andre Maria Zurian), ez dira gai izango antzemateko ea ezkutu obrak egiten jarraitzen duen Alde Zaharreko Pintoreria eta Hedegile kaleetan dituen legezatu gabeko etxebizitza turistikoetan.

KAMERARIK ETA POLIZIARIK GABE

Gasteizko kolektiboan Sin Poli (Poliziarik Gabe) ekimena babesten dugu. Gasteizko kameren gai honetan ere baditugu esperientziak gatazkei zaintza-kamerarik gabe heltzeko aukera ematen digutenak. Hala gertatu zen Alde Zaharreko Barrenkale kaleko gatazkan, sindikoak kamerak ez jartzea gomendatu zuen gatazkan. Edo geroago auzo bereko Santo Domingo kalean, non 2017an ere instalatuko zirela ziurtatu zen, baina zorionez ez ziren jarri. Bi kasuetan, auzokomunitatearen zati baten pazientzia eta lan ona izan ziren arazoak konpondu zituztenak. Gauza bera gertatu da Gustavo Antépara arduradun politikoak Alde Zaharrean egindako legez kanpoko obrek. Bere jokabidea publikoki salatu dutenak ez dira kamerak izan, auzokide antolatua baizik.

Kamerak jartzeko mehatxupean daudenei tresna bat gehiago eskaini nahi diegu: gaiari buruz ezagutzen dugun testurik onenetako bat, Sagarratz Eztabaidarako Taldeak egina. Duela urte batzuk kameraren ezarpena jasan zuten Irungo Mosku auzoan, eta erabaki zuten gogoeta eta ekintzaren bitartez aurre egitea. Gogoeta horren parte da *Egin irribarre, mesedez, filmatua izaten ari zara* testua: "Bideozaintzaren aldeko diskurtsoak eraikitze-ko modua eta bere onarpena sustatzeko *civismo*-aren beharra aldarrikatzea, gure



INSITEL enpresak irabazi du Gasteizko kamera berriak jartzeko kontratua. Insitel EAJri loturiko enpresa da, eta bezeroen artean ditu, besteak beste, Bilboko Portu Agintaritza, Euskal Trenbide Sarea, Bilbao Exhibition Center, edo Eusko Jaurlaritza. Irudia: insitelsa.es

Baditugu esperientziak
gatazkei zaintza-kamerarik
gabe heltzeko aukeraz hitz
egiten digutenak

kritikak jasotzen lehenak izan behar dira. Erruduntasunean oinarritutako diskurtsoa da neurri horiek asimilatu eta kontrolarekiko tolerantzia garatzeko bide nagusia. Ezin dugu aipatu gabe utzi ondokoa: ondorengo belaunaldiek jaso behar duten hezkuntzaren eta baldintzapenaren parte dira kontrol-neurriak, sistemaren jarraipena bermatzeko indarkeria sinbolikoaren zati dira, protestak diluitu eta herritarrok kaltegabe bihurtu arte". Kontuan izan dezagun.

**Estitxu Martínez de Guevara Gasteizkoak talde antimilitaristako kidea da. ●*

Uxue Alberdi
Begoña Durruty

BELARRIKO KILKERRA

Ahozkoak idatzira ekarritako istorioak; ahotsa begira; belarrikoa paperera.

elkar
www.elkargaritaletxea.eus

EUSKARA NAFARROAN AMAIA NAUSIA PIMOULIER:

“Euskara abertzaleen proiektu nazionaletik askatu behar dugu”



Eusko Ikaskuntzak aurten kaleratu du *Aniztasuna eta bizikidetzaz Nafarroan*. *Euskara eta nazio identitateak* ikerketa lana. Amaia Nausia –Eusko Ikaskuntzako proiektu arduraduna–, Julen Zabalo eta Txoli Mateosek egindakoa da. Azken lau urteetan Nafarroa osoan molde ugarietan egindako 206 elkarrizketetan oinarritzen da lana eta egileek azpimarratu dute nafarrek kultura demokratikoan sakondu behar dutela, bizikidetzan eta aniztasunean aurrera egiteko. Espainiar eta euskal identitateen arteko talkan harrapatuta ikusten dute euskara, eta alderdiek borroka politikotik askatu beharko luketela iritzi diote. Elkarrizketa honetan batez ere euskararen alorrari heldu diogu. Lanak sortu du ika-mikarrik, prentsako hainbat artikulutan ikusi den gisan.

dugu aniztasunaz erraz hitz egiten dugula, baina sarri ez gaudela prest aniztasun hori onartzeko, behintzat identitate kontuez ari garenean.

Hiru arlo aipatzen dituzue: gizartea, administrazioa eta talde politikoak.

Azterketa egin ondoren, zer proposatzen duzue bakoitzean?

Ikusten dugu alderdikeriak biziki kutsatzen duela gizartea. 2019an herri-tarrekin lan handia egin genuen eta politikariei askotan leporatzen zieten gizar-tean gatazka sortzen zutela. Gizar-teak eta mugimendu sozialek protagonismo handiagoa hartu beharko lukete, gatazkaren konponbidea alderdiengan delegatu gabe.

Azterketaren arabera, sumatzen duzue aldaketarik Nafarroan euskarari dagokionez, onerako edo txarrerako?

Gu ez gara sartu kontu soziolinguistikoe-tan, jarrerak aztertu ditugu. 2016an egin zen inkesta soziolinguistikokoan ikusten da, lehen aldiz, administrazioak euskara sustatzearen aldeko jarrerak behera egiten duela, eta azkeneko inkesta soziolinguistikokoan joera hori mantentzen da. Nafar herritarrei galdetzen genienean zerk oztopatzen zuen bizikidetzaz, hiru alor aipatzen zituzten: polarizazio ideo-

 XABIER LETONA BITERI  ZOE MARTIKORENA / ARGIA CC BY-SA

“Gure bizikidetzak behar dituen gakoak aurkitzea” izan da lanaren helburu nagusia. Zein gako nagusi topatu dituzue?

Bizikidetzaz modu sakonean ulertzen dugu, gugandik ezberdina denarekiko aitorpena dakar eta horretarako kultura demokratikoa behar da. Eta azterketan hori islatu da: Nafarroako gizar-tean

kultura demokratikoaren falta dagoela. Etsai-lagun dikotomia horretan bizi gara, irabazle-galtzaile narratiba horretan. Horrek ez dakar benetako bizikidetzaz demokratikorik. Horretarako bestearen aitorpena behar da, harremanak modu horizontalagoan eraikita. Guk bi identitate aztertu ditugu: euskal identitatea eta espainiarra, eta ikusten



logikoa, nazio identitateen arteko talka eta euskararen kudeaketa.

Espainiar nazionalismoaren proiektu politiko zehatz batek indartu egin du euskararen aurkako diskurtsoa, uste duelako euskara gehiago sustatzeak euskal nazionalismoaren gorakada ekarriko duela. Euskal nazionalismoak, halaber, 1960ko hamarkadatik aurrera euskararen eta abertzaletasunaren arteko lotura indartu egin du –aurretik ez zen horrela–, eta hortik dator “que vienen los vascos” delako ospetsu hori.

Euskararen eremuan bereziki jorratu beharreko hiru alor aipatzen dituzue: ofizialtasuna, hezkuntza eta euskara administrazioan. Zuen ustez non daude hiruekiko klabe nagusiak?

Ofizialtasuna aztertu dugu berdintasunaren paradigmen ikuspegitik. Gaur egun, Nafarroan hezkuntza komunitatearen %60k euskararekin inongo harremanik ez izateko eskubidea du, eta horrek jarreretan eragiten du: ez duzu atxikimendurik ezagutzen ez duzuna-

“Euskalgintzak eta euskal nazionalismoak aztertu beharko lituzkete beren diskurtsoak, eta beste klabe batzuk eraiki”



rekiko. Horrek aukera desberdinkeria dakar, eta hori sarri aipatu digute gure azterketan: “Zonifikazioaren ondorioz, nik ez badut izan euskara ikasteko aukerarik, orain ni desberdinkerian nago euskara jaso zuten horiekiko”. Berdintasunaren ikuspegitik zonifikazioak desberdinkeria areagotzen du.

Beraz, zonifikazioa bertan behera utzi beharko litzateke eta ikasle guztiak izan beharko lukete harreman maila bat euskararekin. Jakina, berdintasunaren ikus-

pegitik, euskarak inongo lanposturako ez puntuatzea ere berdintzea da, baina orduan non geratuko litzateke azterketa honen bigarren kontzeptu nagusia, hau da, aniztasuna? Administrazioak, hortaz, ofizialtasuna bultzatu behar du, baina diskurtsoen lanketa bat ere egin behar da, Topagunea azken urteetan egiten ari den ildotik. Gure ustez, Nafarroan arazo larriena jarrerena da. Legez, gaur egun, Nafarroa osoan ireki daitezke D eredu-ko lerroak familiek hala eskatuz gero, baina horrek jarrerekin egiten du topo: eskoletako zuzendaritzak, inguruaren jarrera, administrazioaren jarrera... Horregatik diogu gatazka, batez ere, identitariotza eta politikoa dela eta, beraz, ikusi behar da euskararen gaia nola kudeatu behar den ahalik eta demokratikoen tesuinguru horretan.

Euskara sustatzearen aurkakoak zer gauza zehatzetan oinarritzen dira euskararen inposizioaz ari direnean? Batez ere lan munduko desabantailatan eta hezkuntzaren derrigortasunean.

Kontua ez da hori egia edo gezurra den, gure lanean pertzepzioei buruz ari gara eta, haiek nola bizi duten baizik. Horregatik, esaten dugu gaia oso emozionala dela eta euskararen inguruan arrazionalizazioa behar dela. Euskararen alde egin den borrokagatik lortu dira gaur egungo lorpenak, eta abertzaletasuna eta euskara lotu duten diskurtsoengatik, hori ukalezina da, baina gaur egun diskurtso horiek ez dute laguntzen hainbat jarrera negatibo deseraikitzen eta, agian, indartzen dituzte. Horregatik uste dugu euskalgintzak diskurtsoak eta jarrerak landu behar dituela.

Zuen lanean ofizialtasuna onartzea eskatzen diozue Nafarroako administrazioari, baina aldi berean, ofizialtasuna gaur egun bigarren lerro batean ere utzi daitekeela diozue. Azaldu dezakezu?

Garrantzitsua da azaltzea gure lanaren helburua ez dela aztertzea euskararen hedapena nola handitu daitekeen, baina nire ustez, indarra batez ere jarri behar ko genuke jarreraren lanketan, ikusteko nola landu daitezkeen Nafarroan nagusi diren indiferenteen taldekoak, aurka-koen diskurtsoak deseraikitzea zailagoa da eta.

Zer egin daiteke jarrera horiek aldatzeko?

Euskalgintzak eta euskal nazionalismoak aztertu behar ko lituzkete beren diskurtsoak, eta beste klabe batzuk erakiki. Jakina, euskaldunek jasaten dituzten hainbat egoerak eskubideekin dute zer ikusirik, jazarpen historiko batekin... Baina euskaldunei biktimizazio gehiegizkoa ere leporatzen zaigu. Etorkinei galdetuz gero pribilegiatuak garela ere ateratzen da; behar materialak ase ditugunean, hizkuntza eskubideekin ari garela eta ez ditugula ikusten egoera zaurgarrian daudenak. Orduan, nola iritsi gehiengoarengana, etorkinengana...? Euskalgintzaren barruan egiten ari da hausnarketa hori. Euskara nafar guztien izatea nahi badugu, aukera hori eman behar da, eta orduan hizkuntza abertzaleen proiektu nazional legitimoa den horretatik askatu behar ko dugu.

Nola egiten da hori?

Kontua da euskal eta espainiar nazionalismoaren bi identitateek ukatzen diotela elkarri nafar izatea, edo "nafar ona" izatea. Batzuentzat euskara da Nafarroaren sustraia, eta besteentzat, ez. Baina,



“Etsai-lagun dikotomia horretan bizi gara, irabazle-galtzaile narratiba horretan. Horrek ez dakar benetako bizikidetza demokratikorik”



jakina, espainiar nazionalismoak ere ez du jarrera demokratikoa euskararekiko, beraz, errespetatu behar ko luke ikuspegi demokratiko batetik, eta utzi behar ko lioke arma politiko moduan erabiltzeari.

Abertzaletasunetik, euskaltzaletasunetik... zein taldek, alderdik ukatzen die nafar espainiarrei nafar izatea?

Galdetuz gero nafar sentitzen diren, elkarrizketatu ditugun nafar herritar guztiek, berdin dio euren ideologia, zo-

naldea, identitate nazionala edo euskararekiko zuten jarrera, denek esan digute nafar sentitzen direla. Baina, galdetuz gero zertan datzan nafartasun hori ez ziren ados jartzen. Agerikoa da ere hegoaldean sentitzen duten mespretxua, bigarren mailako nafar izanen balira bezala, “ahaztuak” sentitzen dira, bai administrazioaren aldetik, baina baita Nafarroako beste zonaldeko herritarren aldetik ere. Nafarroako iparraldean egin ditugun Gizarte Foro, Herritar Mahai eta Gazte taldeen topaketetan, berriz, hori ere onartzen ziguten, eta nolabaiteko mespretxu puntu bat adierazten zuten hegoaldearekiko. Nafar euskal hiztun izateak “nafartasun ona” adieraziko balu bezala. Ez diogu nafar izatea ukatzen diotenik, baizik eta alde bietan “nafar onaren” monopolioa aldarrikatzen dela.



Saiatzen ari naiz ulertzen aipatzen duzuen nafar espainiarren ukatze hori errealitatean non ikusten den, zenbatekoa den... Ez zait erraza egiten.

Herritarrekin eta hainbat talderekin lau urtetan egindako ikerketa soziologikoa da hau. Metodologikoki hemen jaso diren profilak anitzak dira zentzu guztietan. Eusko Ikaskuntzak beti zorrotz lantzen du metodologia, euren emaitzek dagokion berme zientifikoa izan dezaten eta tentuz landu da kasu honetan ere. Aurretik argitaratu ditugun txosten batzuen inguruan izan dira ika-mikak, eta orain ere esan digute jazarpena ez dugula kontuan hartzen, jarrera euskarabobikoak zurrizten ditugula... Hiru kontu argi utzi nahiko genituzke: bat, lanean agertzen direnak ez dira proiektu honen Talde Eragilearen iritziak, guk islatu besterik ez ditugu egin nafar herritarren iritziak. Bi, hori ez da Eusko Ikaskuntzaren jarrera euskararekiko, hau ez delako izan euskararen inguruko ikerketa bat. Eta hiru, euskalgintzan bada sektore bat hau guztia min handiarekin bizi duena, min hori legitimoa da. Ikerketa honek jarrera guztiak islatu nahi izan ditu.

“Iparraldean egin ditugun Gizarte Foro, Herritar Mahai eta Gazte taldeen topaketetan, nolabaiteko mespretxu puntu bat adierazten zuten hegoaldearekiko”



Euskararen despolitizazioaren gaia ere ateratzen da azterketan. Zer esan nahi duzue?

Jakina, administrazioak egin behar du hizkuntza politika eta euskara sustatu. Guk diogu euskara alderdikieretatik at utzi behar dela.

Lanaren amaieran, elkar ezagutza eta konfiantza lantzea proposatzen duzue, eta hori lantzeko mugimendu bertikala eta horizontala aipatzen dituzue. Azaldu dezakezu zer diren?

Gazteekin egon ginen Beran, Iruñerrian eta Erriberan, eta ezagutza eza eta konfiantza ezaren gaia atera zen. Batetik, sumatzen dugu badagoela konfiantza falta eremu espainiarrean, zeinak uste duen euskarak balio duela proiektu nazional bat bultzatzeko. Eta, bestetik, ezagutza falta dago, eta askotan mespretxu puntu bat Nafarroako Iruñerriatik gorako –berau barne– zatiaren aldetik hegoaldearekiko. Beraz, mugimendu bertikalaz ari garenean, administrazioak kohesioa lantzeko duen arduraz ari gara (azpiegiturak, hezkuntza...). Eta horizontala herritarren artean landu beharreko harremana da. Diskurtsoan badira galtzailea, irabazlea, etsaia moduko hitzak eta horiek bestearen aurka kokatzen gaituzte, eta ez ondoan. Begirada feministan badaude gatatzak modu horizontalagoan kudeatzeko esperientziak, konfiantzaren eremutik eta abar, horretaz ari gara. ●

BABESLEA:

Lezoko Unibertsitateko Udala

EUSKARAZ ZARA euskaraz gara!

CHEMSEX

Sarean landu beharreko osasun publikoko arazoa

Gizonen artean sexu harremanak denbora luzez izateko substantziak kontsumitzean datza “chemsex”-a. Fenomeno kultural bat da, eta osasun arloko profesionalak eta chemsex erabiltzaileek ohartarazi dute osasun publikoko arazo bat dela, eragina duelako osasun fisikoan, psikologikoan eta sozialean.

 OLAIA L. GARAIALDE  IBÁN AGUINAGA

O asun arloko zenbait profesional eta chemsex erabiltzaile Iruñean elkartu dira, urriaren hasieran, chemsexak Nafarroan duen inpaktua aztertu eta erantzun komunitario bat emateko. Batez ere hiri handietan –Madril, Bartzelona, Paris...– ematen den arren, hiri txikiagoetara zabaltzen ari da eta kezka piztu du Nafarroan. Sarek gidatuta zenbait galderari heldu diote.

Chemsexa zenbait ordu edo egunetz sexu harremanak izateko drogak –substantziak– kontsumitzean datza. Gizonen arteko harreman sexualez ari gara. Hala ere, poliki-poliki emakume transak eta pertsona ez-binarioak ere praktikatzen ari dira chemsexa. “Fenomeno bat dela esaten dugunenean ulertu behar dugu testuinguru kultural eta komunitate jakin baten barruan ematen dela, eta elkar ulertzeko kode, hiztegi edo terminologia zehatz bat dagoela erabiltzaileen artean”, azaldu du Luis Villegasek, Stop Hiesaren kudeatzaile eta Chemsex Suport zerbitzuaren koordinatzaileak.

Chemsex saioak gehienetan etxe pribatuetan izaten dira, baina egin daitezke baita ere lokal komertzialetan; hala nola saunan, alokatutako pisuetan edo sexu-klubetan eta cruising guneeetan. Etxe pribatuetan egiten direnean, adibidez, *chill* deitzen zaie.

Villegasen arabera, praktika honek plazera bilatzearekin lotura handia duenez, fenomenoaz aztertzerako orduan plazera nola kudeatzen den kontuan hartu behar da: “Harreman zuzena dauka geure maskulinitatearen pertzepzioarekin”. Sexu harremanetan maskulinoa izatea “oso lotuta” dago gizon zisheterosexualaren eta patriarkalaren irudierekin: “Maskulinoa izateko bilatzen da ahalik eta gehien irautea, dominatzailea izatea, ahalik eta arrisku gehien hartzea eta beste gauza asko; zenbat eta gehiago, orduan eta gizonagoa”.

Bat egin du horrekin Andrea Carrillo Juanbeltzek, Nafarroako Gizakia Helburuko psikologoak. Sexuaren eta drogen erabileraren arteko harremanaz, nabarmendu du “berehalako plazera”, “mugarik gabeko plazera” eta desinhibizioa bilatzen direla. Horrez gain, espektatiba sozialak betetzeko ere erabiltzen direla uste du; hala nola pornografian ikusten diren gauzak erreproduzitzeko, traumak estaltzeko edo egin nahi ez den zerbait egiteko: “Adibidez, ondorioztatu dugu emakume heterosexual batzuek drogak hartzen dituztela larria jo nahi ez baina espektatibak betetzeko gehiago irau behar dutenean”.

Zenbait arrisku nabarmendu ditu; hala nola sexuaren inguruko “ideia irrealak”, gozatzeko gaitasun “gutxiago”, menpekotasuna eta Sexu Bidezko Infek-

zioen (SBI) transmisioa. Gaineratu du plazerarekiko tolerantzia garatu eta berai sentitzeko gaitasuna txikitzen dela: “Demagun nik egunero jaten dudala sagar bat, eta sagar horrek plazera ematen didala. Azukrea botatzen badiot sagarrrak ematen zidan plazera handitzen da. Egunero hasten banaiz sagarra azukrearekin jaten, azukrerik gabeko sagar bat jaten dudanean motela irudituko zait”.

ARTATZEKO DENBORA GUTXI

Osasun psikologikoari eragiteaz gain, osasun publikoko arazo bat dela nabarmentzen dute profesionalak. Bat dator horrekin Carlos Ibero medikua eta Nafarroako Ospitaleko gaixotasun infekziosoen espezialista: “Ez die soilik erabiltzaileei eragiten, ingurukoei ere eragiten die; ekar ditzake GIB edo Giza Immunoeskasiaren Birusa zabaltea, drogekiko menpekotasuna, adostu gabeko praktika sexualak izatea, identitate eta autoestimua arazoak, eta estigma handia gizartean eta familian”.

Juan Indurain Bermejo mikrobiologoaren arabera, geroz eta SBI “gehiago” erregistratzen dituzte, baina horrek ez du esan nahi gorakada bat dagoenik: “Kopurua igo da kontzientziazio maila ere igoko delako; eta hortaz, proba gehiago egiten ditugulako”. 2006. urtean 637 serologia egin zituzten, eta iaz berriaz, 1.309.



Gerard Funés Martín: "Gure bizipenak kontatzeko beldur gara, agian ez dutelako ulertuko kontatzen duguna".

Osasunean duen eragina dela eta, Indurainen ustez "oso zaila" da gai hau kontsultan lantzea, kontuan izanda soilik hamabost minutu dituztela paziente bakoitzarekin: "Konfiantza behar da, oso aspektu intimoez aritu behar dugulako eta epaituak sentitzeko beldurra dutelako". Horrez gain, pazienteek autonomia "handiagoa" beharko luketela uste du: "Iritzia eman beharrean, informazioa eman behar dugu, epairik gabeko aholkuak eman behar ditugu eta gure mugak onartu behar ditugu".

Carlos Ibero medikuaren ustez ere, kontsultetan duten denbora ez da nahikoa paziente bat ongi artatzeko: "Zenbat eta denbora gehiago izan, orduan eta informazio gehiago ateratzen dugu". Oraindik fenomenoaren gorabeherek profesionalen eskuetatik ihes egiten dutenez, informazioa jasotzea bereziki garrantzitsua da: "Lehenengo, arazo

Uste baino eragin
handiagoa du
chemsexak Nafarroan.
Oso garrantzitsua da
kontsultetan entzumen
aktiboa izatea, ez
kriminalizatzea eta epaitu
gabe jokatzea

identifikatu behar dugu, eta gero onartu, erantzun komunitario bat emateko". Gaineratu du sentsibilizatzea, ikusgaitasuna ematea -morboan erori eta errua bota gabe- eta beste informazio iturri batzuk bilatzea ere garrantzitsua dela.

2010ETIK NAFARROAN

2010 eta 2015 urteen artean hasi ziren Nafarroan identifikatzen gai honi lotuta osasun arazo bat zutela. Garai hartan, larrialdietan lan egiten zuen Iberok, eta geroz eta koma kasu gehiago artatzen ari zen: "Asko mutil gazteak ziren, eta ez zegoen argi zergatia; batzuetan alkoholarek ondorioroz izan arren, baziren substantzia batzuk ez genituenak identifikatzen". Medikuaeren ustez, horrek adierazten zuen osasun arloko profesionalak ezagutzen ez zuten fenomeno bat ematen ari zela kalean, eta ez zekitelako ongi zein zen substantzia horiek kontsumitzearen helburua.

Pazienteekin hitz egiteko denbora hartuta, afera zein zen identifikatzen hasi ziren: "Ikusi nuen batzuen kasuan sexuarekin harreman zuzena zuela substantzien kontsumoak, damutzen zirela zenbait praktika sexualengatik



Ezker-eskuin, Andrea Carrillo psikologoa, Carlos Ibero medikua, Juan Indurain mikrobiologoa eta Julia Munarriz Sare elkarteko presidentea.

edo substantziekin harrapatu duten jendea ere bazegoela”. Nafarroan chemsexa uste baino zabalduagoa zegoela ikusi zuenean, Bartzelonara joan zen gehiago formatzera, han esperientzia handiagoa dutelako eta gaia jorratzeko saretutako dispositiboak dituztelako.

Iberok argi dio, uste baino eragin handiagoa du chemsexak Nafarroan. Horregatik, uste du “oso garrantzitsua” dela kontsultetan entzumen aktiboa izatea, ez kriminalizatzea eta epaitu gabe jokatzea. Horretarako, konfiantzazko espazioak eta denbora behar dira: “Bermatu behar dugu medikuntza arloan erreferente bat dutela pazienteek, pazienteak fidelizatu behar ditugu”. Horrez gain, heziketan eta prebentzioan indarra jarri behar da.

Iberok emandako datuen arabera, Nafarroan GIBa duten 1.200 pertsona inguru daude: “Hala ere, uste dugu beste 200 bat lagun egon daitezkeela hautean ez ditugunak”. Horrez gain, urtero 30 eta 50 pertsona berri inguru identifikatzen dituzte, eta horien %40aren zat berandu izan ohi da. Kontsultara doazen pertsonen %30-40 inguruk Prep botika –GIBarekiko esposizio aurreko profilaxia– hartzen du: “Hori esan didate

Espektatiba sozialak betetzeko ere erabiltzen dira substantziak sexuan, hala nola pornografian ikusten diren gauzak erreproduzitzeko, traumak estaltzeko edo egin nahi ez den zerbait egiteko

kontsultaz kontsulta konfiantzazko harremana sortu dugulako”.

AUTOZAINZTA

Chemsex erabiltzaile askok ez du kondoirik erabiltzen; hala ere, beste babes neurri batzuk hartzen dituzte, hala nola aipaturiko Prep botika. Juanse Hernández Gtt-vih-ren GIBari buruzko lantaldearen koordinatzaileak dioenez, kondoirik ez erabili arren, autozaintzarako espazioa badago chemsexean: “Jakin badakigu chemsex saio askotan arriskuak saihesteko neurriak hartzen dituztela,

baina ez denez ikertzen, ez dakigu zein neurri hartzen dituzten eta horietatik zeintzuk diren eraginkorrak”.

Informazio gutxi dagoen arren, Belgikan egindako ikerketa baten emaitzen berri eman du, ohartarazita lagin txiki bat denez ondorioak ezin direla gizarte osora zabaldu. Ikerketa hori garatzeko hogeit hamar pertonekin mintzatu ziren, saioen aurretik, saioek iraun bitartean eta ostean hartutako babes neurrien inguruan. Parte hartu zutenek esan zuten, besteak beste, saioak planifikatzen zituztela alde aurretik jakiteko behar zuten guztia dagoela, hala nola ura eta janaria eta zer egin larrialdi egoera batean. Saioak iraun bitartean, lubrikatzailea erabiltzen zuten, Prep botika hartzen zuten eta pertsona bat ura eta janaria emateaz arduratzen zen. Amaitzean, osatzeko denbora hartzen zuten. “Nire asmoa ez da praktika hau banalizatzea; arriskuak daude, baina zintzoak izanda kontuan hartu behar dugu badagoela jendea babesten saiatzen dena”, adierazi du.

PERTSONAK ERDIGUNEAN

Osasun arloko langileez gain, chemsex erabiltzaileek ere hartu dute hitza jardunaldietan; esate baterako, ChemSex



Support eta ProtegerSex Stop Sida batzordeetako boluntarioa eta chemsex erabiltzailea den Gerard Funés Martínek. Nabarmendu du beharrezkoa dela erabiltzaileen bizipenak entzutea, askotan zokoratuta geratzen direlako: "Gure bizipenak kontatzeko beldur gara, agian ez dutelako ulertuko kontatzen duguna", esan du.

Gaineratu du chemsex lantzerako orduan, pertsonak erdigunean jarri beharrean, substantziak jartzen direla erdigunean: "Deabrututa sentitzen gara, ez digute galdetzen zein den funtzioa edo zer sentitzen dugun". Harremanak bertikalak izaten direla ere salatu du: "Zenbat eta harreman estuagoa medikuaren eta pazientearen artean, orduan eta errazagoa izan da afera modu holistikoan lantzea". Asko eskertu du jardunaldietan parte hartu duten medikuek aipatzea enpatiarekin eta epaitu gabe artatzearen garrantzia.

Aldiz, auzia lantzen duten langileek erabiltzaileak deslegitimatzen dituztela kritikatu du: "Ematen du ez dugula erabakitzeko gaitasunik, baina uste dugu subjektu politikoak izan behar dugula eta e-estruturaz demokratikoak eta autonomoak sortu behar ditugula".

Artatze zerbitzuak orokorrean substantziak uztera bideratuta zeudenez, fenomeno honi erantzuteko ChemSex Support sortu zuten Bartzelonan. "Substantziekin menpekotasuna lantzen zenean, alta ematen zen, baina pertsona horiek ez zituzten dinamika sexualak berreskuratzen, ez ziguten galdetzen zer bilatzen genuen", esan du. Horrekin batera plazera sentitzeko eskubidea aldarrikatu du: "Chemsexean hasi ginenean, baguen hainbat beldur, baina plazera nahi genuen". Horregatik, azpimarratu du plazera kudeatzen ikasi behar dela.

Dinamika sexualak galtzearekin batera, sozializatzeko espazioak ere galdetzen dituzte erabiltzaileak. Horregatik, sexu eta drogarik gabeko espazioak sortu nahi zituzten: "Erabiltzaileon artean hitz egiteko beharra sentitzen genuen". Behar horretatik abiatuta, ProtegerSex Stop Sida batzordea sortu zuten erabiltzaileen artean. Bertan, elkarri laguntzeko taldeak, babes emozionala, maskulinitatea lantzeko tailerrak, ikerketa eta material informatiboa, substantziak analizatzeko zerbitzua eta aisialdi alternatibak eskaintzen dituzte. "Gure helburu nagusia da erabiltzaileak ahalduntzea", nabarmendu du. ●

SASI-EKOLOGIKOA AGROEKOLOGIAREN ETSAI?



**AINTZIRA OÑEDERRA ETA
GOIURI ALBERDI**
ASUNEK

Krisi klimatikoaren inaktu negatiboak hain agerikoak diren honetan, zeharka soilik kezkatzen gaituzte. Indar korrelazio bat dago, zeinak, behetik gorako proiektu agroekologikoak tentsio konstantean mantentzen dituen, eta "greenwashing"-aren bitartez, elikagai ekologikoen merkantilizazioa areagotzen duen.

Ohikoak dira ebidentzia zientifikoek begi aurrean jartzen dizkiguten agertoki paradoxikoak: gizakiaren jardueraren ondorioz, Lurraren bederatzi mugetatik sei gainditu ditugu eta hauek urratuz gero, orain arte ezagutu den bizitzaren jarraipena ez litzateke ziurtatuta egongo. Kontua da, badela indar korrelazio bat guri antzeko berriek zeharka soilik eragiteko, eta botere egiturak zalantzan jarri ordez, badirudi zaplaztekoak modu naturalean jasotzen ditugula.

Indar korrelazio horrek botere arrakalak handitzen dituen heinean, maila baxuenetik iristen diren egitasmoak tentsio betean aurkitzen dira Elikadura Sistema Hegemonikoaren logika aldatzeko inongo konpromisorik erakusten ez duten eragile pribatu zein publikoekin. Eredu ezberdinen arteko tentsio eta borroka eremuak egoteaz gain, eragile pribatu eta publiko horiek Agroekologiatik eraiki den diskurtsoa bereganatzeaz arduratzen dira, nahiz eta "nekazaritza klimatikoki adimenduz", "intentsifikazio iraunkorraz", edo "presiziozko nekazaritza" ari diren.

Ez dugu atzera hainbeste urte egin beharrik antzeko gertaerekin topo egiteko. Elikadura Sistema Industrialaren



eragin negatiboak murrizteko sortu zen zigilu ekologikoak hartu duen norabideari erreparatu beharko genioke. Esperientzia honek erakutsi digu elikadura korporazio handiek nekazaritza ekologikoaren araudia aldatzeko duten gaitasuna: nekazaritzan erabili ahal diren substantzien ordezkapen logikan oinarrituz, eskala handiko monolaborantza "ekologikoarekin" merkantilizatzeko eszenatokia sortu dute. Gaur egun, elikagai ekologikoen salmenta General Mills eta Danoneren eskuetan dago. Azken finean, Agroekologia nekazaritza industrialera afinatzeako praktika gisa irudikatzen dute; desoreka (sozio-ekonomiko) estrukturaleri heltzeko inongo interesik gabe.

Boterea gero eta esku gutxiagotan kontzentratzen duen indar korrelazio

horrek, hainbat erakunderen babesa du, hala nola, gobernuena, komunikabideena, edo hezkuntza-sistemarena. Horrela, zaila suertatzen da instituzio publikoetatik Elikadura Sistema eraldatzea helburu duten proiektu Agroekologikoak epe luzean mantentzea, marko honetan kokatzen dugu azken urtean Nafarroako Nekazal Ekologikoaren Kontseiluari (NNPEK) gertatua. Konturatu gara, Nafarroako nekazari Agroekologikoen arteko elkarlana indartzeko gaitasuna erakutsi duen heinean, horniketara eta logistika zentro bat egituratuz (Ekoalde proiektua), edo Iruñeko haurreskoleta jangelak hornitzeko pleguetan irizpide Agroekologikoak ezarriz (Hemengoak proiektua), bat batean, pribatizazioari atea irekitzeaz gain, Kontseilua barrutik hustu egin dutela. ●

A ZE FAUNA!

DEFENTSA GUZTIAK EZ DIRA ONAK



EGOITZ ALKORTA MIRANDA
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Mendebaldean kirikiño, erdialdean triku, eta ekialdean sagarroi. Euskal Herri osoan aurki dezakegun animalia sinpatikoa. Ugaztun txiki hau oso ezaguna da gure artean, baita maitatua ere.

Bizkarraldea eta alboak arantza zorrotzez babestuta ditu, armadura bailitzan. Arantza horiek hutsik dauden ileak dira, keratinaz beteak, eta horrek ematen die zurruntasuna. Keratina gure azalean, ilean eta azazkaletan ere badagoen proteina da. Aurpegian eta sabelaldean, aldiz, ez du horrelako babesik, eta kolore arrexka da nagusi. Hiruki formako burua du, belarri txiki borobilduak eta muturra zorrotza, baina oso malgua. Nagusiki gautarra izanik, begiak txiki samarrak

ditu eta ikusmenak garrantzi txikia du jatekoa bilatzerakoan. Usaimen ikaragarria du ordea eta entzumena ere, ona.

Baso, belaze, baratze eta zuhaixkaz osaturiko gunek ditu gustuko, baina ez da arraroa izaten lorategi eta hiriguneetako parkeetan ere aurkitzea. Inguru horietan aurkitzen ditu jateko hain gustuko dituen intsektuak, zizareak, karakolak... zomorrojale porrokatua baita trikua. Labezomorrojale amorratua ere bada, eta baserrietan sukaldean sartzen omen zuten, bazterrak garbitzera. Intxaurrak, hurrak eta gaztainak ere jango ditu udazkenean gizentzeko, negua lozorroan pasatzen baitu.

Animalia maitatua izan arren, jaki estimatua ere bazen, oso gozoa izaki. Trikuari

beraz, ez zaio beti ongi atera gizakiaren ondora arrimatzea. Gaur egun, ordea, ez da ehizatzen edo etxean edukitzen, debekatuta baitago, eta bere etsai naturalen artean daude zapelatza, hontza handia, ipurtatsa, lepazuria, azkonarra, basurdea eta azeria. Azken horrek pixa egiten omen dio! Antza, azeriaren pixak usain fuertea duenez, trikua bilduta egotetik zabaldu egiten da eta orduan heltzen dio azeriak.

Ez da animalia azkarra, baina naturak defentsa oso eraginkorra eman dio. Bere burua arriskuan ikusten duenean, burua eta atzeko hankak barrurantz bildu eta guztiz kiribiltzen da milaka arantza kanpora begira dituela, jostorrazak baidira. Arantza zorrotzez beteriko "pilota" hori, ezinezko mokadu bilakatzen da animalia askorentzat. Trikua bakean utzi eta alde egiten dute.

Hala ere, trikuak badu etsai benetan gogor bat: autoak. Bizirik ikustea baino, askoz ohikoagoa da trikua errepidean zapalduta hilik aurkitzea (udaberri eta udan, batez ere). Bere bizilekua zatitu izanak gauez errepideak gurutzatzera behartzen ditu. Asfalto gainean, autoaren argiak ziztu bizian gerturatzen ikustean, trikuak bere defentsa mekanismoa martxan jartzen du azkar batean. Bil-bil egiten da. Gomazko gurpil indartsu eta kupidagabeen aurrean ordea, ez du balio. Defentsa trikimailu ezin hobea, tranpa hilgarri bilakatzen da trikuarentzat berarentzat.

Animalia asko hiltzen dira errepideetan urtero. Ehunka, milaka, milioika. Arzoa oso larria da. Bigarren mailako eta landa eremuetako errepideetan abiadura egokian gidatuta, heriotza horietako asko saihestu daitezke. Gure ardura da. Triku sinpatikoak eskertuko digu. ●



ANDER IZAGIRRE EGAÑA COPYRIGHT

TRIKUA

Erinaceus europaeus

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna

NEURRIA: 30 cm inguru, 1 kgr.

NON BIZI DA? Baso, belaze, baratze eta hiriguneetako parkeetan.

ZER JATEN DU? Ornogabeak.

BABES MAILA: Ez dago babestua.

ERREZILAREN AZAL LAKATZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

I tulan dakarte sagarrek negua. Sagarrak badoaz eta negua geratzeko dator; negu tzarra desio dut uso giroko hego haize zakarreko egun hauetan. Negua gozatuko digute negu-sagarrek, jasotzeko eskuz bildu, aukeratu eta toki ilun, haizeberritu eta freskoan jarrri eta zainduz irauarazten ditugun negu-sagarrek, gorde-sagarrek, altxa-sagarrek.

Berandu-sagarrek dira, jeneralean, gordetzeko jasotzen direnak, izan ere, goiz-sagarrek izango duten udazkenaren beroaren erasoak gorbeztuko ditu, barrutik egosi eta usteltze bidean jarri. Ederrak egongo lirateke horiek neguaren bihotzean!

Berandu-sagarretan ere ez da edozein aukeratzeko jasotzeko. Neguan erreta edo gordinik onenetan onenak egongo direnak hautatzen dira. Batzuek Urtebi Handia (*Malus domestica* "Urtebi Haundi") dute gustuko, beste batzuek Mokotxo (*Malus domestica* "Mokotxo"), edo Txalaka (*Malus domestica* "Txalaka"), beste batzuek erretzeko Udare sagarra (*Malus domestica* "Udare") eta gordinerako Danbolina (*Malus domestica* "Danbolin"); baina inolako zalan-tzarik gabe sona mitiko ospetsu eta gogoangarriena duena Errezil sagarra da (*Malus domestica* "Errezil"). Etxe ba-koitzak bere ahosabaia du!

Errezila ez da gitarra jotzera joan eta hankapean topatutako alea. Makina bat urtean gustukoena hautatuz eta hautatuz gure kulturak "sortutako" kultibarra edo bariatatea da. Bere ezaugarri nabarmenenetako bat azal latz edo lakatza da. Kutikularen mikro-pitzaduren ondorioz, fruituaren kanpoko epidermisak kortxozko itxura hartzen du. Zati handi batean marroi



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

argia da, zakar punttu bat duena, eta gainontzekoa berdea, gero horituko dena. Denborarekin mami tente gogorra bigundu egingo da, ahoratzea erraztuz.

Errezilean azaleko lakatz hori ezaugarri baliotsua da eta aintzat hartzen da. Beste sagar batzuek ere badute ezaugarri hori, Udare sagarrak, Anixa sagarrak (*Malus domestica* "Anixa") baita zenbait udarek ere: Konferentzia udareak adibidez (*Pyrus communis* "Conference"). Udare hori ekoizten den tokietan nahiago dute azalaren lakatz hori oso axalekoa izatea, eta ez

balitz hobea. Azalaren marroi kolore hori hezetanari, temperaturari, haizeari, gaitzen eta izurriteen erasoari, ongarriketa desegokiari, itxuragabeko inausketari edota "zaintzeko" botatzen zaizkion produktu kimikoei zor zaie, besteak beste.

Iaz frutazaleek lehortea izan zuten etsai nagusi, aurten hezetanari. Horrek azal zakarraren arazoa puztu du. Errezilzalea den kulturaren onerako eta Konferentziazalea denaren kalterako. Eskerrak niri hezetanarekin azala findu egiten zaidan. Azala izan, badut, bai! ●

HITZEZ

ETA, ZAINZAILE DIREN BASERRIETAKO EMAKUMEAK, NORK ZAINTZEN DITU?



GARAZI ZABALETA

Urola Kostako baserriko bost emakumek sortu zuten 2007an Hitzez elkarte, landa eremuko emakumeen osasuna hobetzeko helburuarekin. “Zaindariei zuzendutako sostengu-taldeetan ezagutu genuen elkar, eta lanketa bat egin ondoren, 2006an erregistratu genuen elkarte”, azaldu du Ana Mari Eizagirre kideak. Izan ere, bost bultzatzaileak ohartuak zeuden besteen zaintzaz arduratzen ziren emakume asko osasunez eta mentalki ondoezik zeudela. Emakume baserritarrei ez ezik, herritar guztiei zuzendutako ekimen ugari antolatu dituzte urte hauetan.

PARTEKATZEKO BEHARRETIK SORTUA

“Sortu ginenean, hutsunea baino, emakume baserritarren artean gauzak partekatze beharra zegoela esanen nuke”, dio Eizagirrek. Izan ere, emakumeek historikoki izan duten eginkizunetako bat familiako beste kideak zaintzea izan da, baita baserrian ere. “Gure bizipen, zailtasun, beldur, poz eta antsietateak adierazteko lekuri ez dugu izan emakume baserritarrok”, diote taldearen aurkezpenean. Guztiek dituzten arazo ekonomiko, emozional nahiz bizikidetzakoei elkarrekin, bizipenak partekatuz, aurre egiteko asmoz abiatu zuten taldea.

“Sortu ginen garai hartan, gainera, ez zegoen emakume baserritarren osa-



HITZEZ ELKARTEA

sunari begirako ekimenik. EBEL taldea martxan zegoen, baina eskubideen aldarrikapenari begirako lana egiten zuen batez ere”, gehitu du kideak. Bada, behar eta hutsune hori betetzeko saikeran ari dira elkarteko kideak geroztik, urtero programa bat proposatuta hainbat tailer, hitzaldi, formazio eta topaketekin. Emakumeen Etxeekin, Landa Garapeneko Elkarteekin eta beste zenbait entitaterekin elkarlanean antolatzen dituzte horietako ekimen asko.

URTEKO 365 EGUNAK, URRIAREN 15A

Landa Eremuko Emakumeen nazioarteko eguna pasatu berri den honetan, izan dute zer ospatua eta zer aldarrikatua Hitzez elkarte, baina argi du Eizagirrek egun bakarrera mugatzea baino garrantzitsuagoa dela urte osoko lana.

Eta, zer egin duten urte osoan? Aurten goaz galdetuta, ekimen zerrenda ederra aurkeztu du baserritarrak: nekazarien erregimenaren inguruko hitzaldia antolatu dute abokatu batekin, emakume migranteekin topaketak egin dituzte, nork bere gorputza ezagutzeko hitzaldi bat izan dute, xaboi tailerra...

“Urtero sei edo zazpi ekitaldi antolatzen ditugu, batzuk emakumeei zuzenduak, baina gehienak herritar guztiei zabalik daudenak”. Ekimen horiez gain, baserritarrei zuzendutako abokatu zerbitzua martxan dute Aian, eta emakume baserritarren barnetegia ere urtero antolatzen dute. “Hobetzeko gauza asko dago, baina, askotan, ateratzea, kafe bat elkarrekin hartzea edo gai baten gainean hitz egitea da gehien eskertzen dena. Eta horretarako espazioak sortzeko beharra dago”, amaitu du. ●

HEDAPENA



ARGIAren postua Etxarri Aranatzan, Nafarroa Oinezen.

Jendearengana gerturatu egin behar da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Momentu batean mugikorretan modan egon ziren arropa, ibilgailu, elikagai eta beste hainbat produktu ezagunen markak asmatzeko jokoak. Zer pentsatua ematen du ikusiteak zein irudi dauzkagun barruraino sartuta, zein logo diren “denok” ezagutzen ditugunak eta horrek zer botere suposatzen duen, noski. Publizitate kanpainetan asmatu dutenik ezin uka (sosak ere laguntzen du). Marka horien pare jartzeko helbururik gabe, baina ARGIAk ere bere irudia jendartean zabaltzeko eta kale-presentzia berreskuratzeko kanpaina jarri du martxan.

2023ko Iraultza Txikien Akanpadan, Kilometroetan edo Nafarroa Oinezen egon bazara, posible da ARGIAren pos-

tua ikusi izana. Akaso gerturatu ere egin zara, irakurle, zer saltzen duten ikustera. Ohartuko zinen, ordea, ez dela salmentagune bat edo, ez behintzat, espresuki horretarako jarria (ARGIAren azokako zenbait produktu saltzeko aprobetxatu dute mahaia, baina ez da lehentasuna eta taularen pusketa txiki bat eskaini diote horri). ARGIA ezagutzera ematea da intentzioa, ezagutzen ez duenari harpidetza eredia eta gure baloreak azaltzea eta ezagutzen duenarekin hizketaldia izatea. Mahaiaren albo banatan jarri dute panel bat eta bakoitzean, simple-simple, oinarrian komunitateari adierazi nahi diotena: 'Babestu euskal kazetaritza independentea' eta 'Egin ARGIAkoa. Prezio finkorik gabe. Ordaindu nahi duzuna'.

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



“Euskal Kazetaritza aske eta kritikoa babesteko asmoz, boteretik aske izateko autonomia ekonomikoa ezinbestekoa delako”.

Iurretatik Josebak

“Aspaldian nuen harpidedun izateko gogoia. Euskal prentsako astekari erreferentia delako”.

Beasaindik Danielek

“Aberria egiten duten komunikabide euskaldunak bultzatzeko”.


Abadiñotik Asierrek

IZANDAKO HARRERA

Erantzun ona izaten ari da jendearen artean, eta bat baino gehiago dira harpidetza eredia azaldutakoan harridura aurpegiz begiratzen dutenak. Berria da kontzeptua askorentzat, baina orokorrean oso harrera ona du kontatutakoak. Harpidetza berriren bat edo beste ere egin da, eta momentuan egindako hori ongi etorri, noski, baina “hazia ereitea da helburua, ARGIA kalean ikustea eta pixkanaka geroz eta jende gehiagok gure funtzionatzeko era ezagutzea”, esplikatu digute lantaldetik.

Lurraman jarriko du hurrengo mahaia ARGIAk, Miarritzen, azaroaren 10etik 12ra bitarte. ●

Adamen saihets antzua



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Babilonia, K.a. 597. Nabukodonosor II.a erregeak bultzatuta, Judeako erresumako goi klaseko kide asko Babiloniara erbesteratu ziren. Handik hamaika urtera, K.a. 586. urtean, Nabukodonosorrek Jerusalem hartu zuen, eta orduan deportazioaren bigarren fasea, askoz masiboagoa, hasi zen; milaka judutar eraman zituzten Babiloniara.

Judutarrek Mesopotamia ezagutzen zuten lehenago ere, Abrahamen garaitik, baina erbestealdi horretan sakonago ezagutu zuten, besteak beste, sumertarren garaian taxututako erlijioa.

Sumertar mitologian *Me* izeneko figurak zeuden, gure munduaren oreka zaintzeaz arduratzen ziren jainkoen kreazioak. *Me* horiek hainbat arte, lanbide eta gaitasun barne hartzen zituzten, eta horietako bat zen *Ti*.

Hizkuntza gehienetan bezala, poliseamia ere bazen sumertarren hizkuntzan, eta *Ti* horren adibide bat da: “bizitza emateko boterea” eta “saihetsa” esan nahi du. Ez dakigu berdin esaten ziren, baina idazketa kuneiformean behintzat zeinu berdinen bidez idazten ziren biak.

Esan bezala, Babiloniako egonaldi behartuan, judutarrek Mesopotamiako erlijioa ezagutzeko aukera izan zuten eta sumertarren hainbat mito bereganatu eta judaismoan txertatu zituzten: Joben liburuak, Pentateukoak eta Salomonen Kantuen Kantak hor dute jatorria, eta



Evaren kreazioa, Adriaen Van Stalbeem (c. 1620).

Moises pertsonaiak Akadeko Sargonen antza handia du.

Gizakiaren kreazioa ere mesopotamiarrei hartu zieten: sumertarren arabera, Enki jainkoak gizonak eta emakumeak batera sortu zituen, baldintza berdinetan, *Ti*-aren bidez. Hau da, “bizitza emateko boterearen” bidez.

Judutarrek, ordea, “saihets” moduan itzuli zuten *Ti*. Hainbat adituk zalantzan jartzen dute itzulpen akats hutsa izan ote zen. Tora oso modu zorrotzean ida-

tzita dago, irizpide zehatzei jarraiki, eta halako akatsak egitea arraroa omen zen. Gainera, Toran lehenago eta Biblian ondoren, gizonaren saihestetik sortu zen emakumea eta ez alderantziz –bigarren aukerak, biologikoki behintzat, logika handixeagoa izan arren–.

Nahita edo nahi gabe egindako itzulpen oker hori medio, Eva Adamen saihestetik sortu omen zen, eta horrek tradizio judeo-kristauaren muturreko misoginia justifikatu du mende luze. ●



INAH

Suge buruaren koloreak pizten

2022ko irailaren 19an Mexiko Hiria astindu zuen lurrikarak ez zuen soilik hondamena ekarri. Tenochtitlan zaharrean lurperatuta zegoen suge buru kolosal bat ere agerian utzi zuen: tona bat baino gehiago pisatzen du eta 180 cm luze eta ia metro bat zabal da. Quetzalcoatl bizitzaren argiaren eta ezagutzaren jainkoaren errepresentazioa da. Buruak polikromia bizia duela ikusi zuten

adituek, baina hezetasunak eraginda, koloreak oso itzalita daude. Horregatik, INAHk (Mexikoko Antropologia eta Historia Institutu Nazionalak) hezetasuna pixkanaka kentzeko prozesu mantsoa jarri du abian, pigmentuak hondatzeko arriskua saihesteko. Prozesua datorren urtean amaituko dela aurreikusten dute eta, handik aurrera, jatorrizko koloreak berreskuratuko ditu sugeak. ●

HERIOTZA LITERATURAN

BIZITZAZ

Ziurtasunik gabeko bidea izan ohi da bizitza. Ez dago seguru dakigun ezer, dakigunik existitzen bada. Jaio garen bezala, hil, denok hilko gara. Baina ebidentzia horri bizkarra eman ez bizi gara Mendebaldeko kulturetan. Ahozko literaturak izan ohi dira heriotzari, hileta ospakizunei, hildakoei, hil ondorengo zainketei buruzko informazioa jasotzen duten literatur esparruak. Horren adibide dira guri idatziz iritsi zaizkigun hainbat kulturatako testu edo liburuak: tibetarren bizitzaren eta heriotzaren liburua, Egiptoko

Hildakoen liburua eta beste. Milurteko jakinduria biltzen da liburuotan, gizakiak bata besteari ahoz eta ekintzaz egindako transmisio baten testigu. Nahastu egiten dira hauetan interdependentek egiten gaituzten zaintzaren adibideak, norbaiten azken momentuak laguntzearen magia, hiltzorian dagoenaren galderak eta zalantzak, azken bidaia sakratua izateko aukera edota bizitzak sortzen dituen hausnarketak. Hauetan heriotza transformazioarekin eta alkimiarekin alderatzen da, ziklikotasunarekin.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI  NURIA GONZÁLEZ

Elisabeth Kluber Rossek medikuntza ikasi zuen eta beste medikuak ez bezala, osatzen laguntzearen beharraz gain, hiltzen laguntzearen beharra ere ikusi zuen. Zainketa aringarriren gaur egungo formaren eraikuntzan ekarpen garrantzitsuak egin zituen eta bere lanean behatu eta ikasitakoarekin *On Death & Dying* liburua argitaratu zuen 1969an. Arrakasta handia izan zuenez, heriotza aztertzen eta horri buruz idazten aritu zen hortik aurrera. Horrez gain, paziente zein senideei heriotzara laguntzeko lanetan segitu zuen, gaiari buruzko begirada zabaldu eta aldarazita.



Hori gogoan, hurrengo liburua aurkeztu nahi nuke: ama galtzen duen alabaren kontakizun autobiografikoa da. Endekapenezko gaixotasun bat duelako heriotza hautatzen duen emakume baten hiltze prozesua kontatzen digu Isabel de Naveranek *Ritual de duelo* liburuan. Dolu egoerak sentsibilitatea aldarazten digu;

ordura arte ohartu gabeko detaileetan pausatzen dugu begirada, bestela begiratuko ez genituzkeen gauzak ikusten ditugu, amets argiak izatera bultzatzen gaitu... Dolua den espazio emozional horretatik idazten du autoreak, tonu sentsible eta errespetuzko batekin, hunkigarria den prozesu bat hitzekin josiz. Kasu honetan eguneroko zaintzak, kontraesanak eta errutinak ametsekin tartekatzen dira arrazoiari zein inkontzienteari lekua emanda. Heriotza prozesuan familiako kide bakoitzak hartzen duen paperaz mintzo da liburua eta akonpainamendua nola egiten duten irakurtzeko (eta irudikatzen) pribilegioa du irakurleak. Edertasuna dario testuari. Argi leun eta beroak biltzen du irakurketa. Maitasunak biltzen du hilda baina ordu batzuek oraindik beraien artean izango den pertsonak. Humanoa da oso.

Sinistu gura ez / norbera be hiltzeko dela, / ezin onartu, ba, norbera hiltzeko

zela hemen / - eta galerna gorria-. Irakurri duzuen hori *Itsaso kontra bat* poema liburuaren zati bat da. Autoreak hil aurreko hilabeteetan idatzia eta hil ostean argitaratua. Azken orduak sortutako zalantzak eta galderak hartzen dituzte lerrook. Beldurrek. Horrela jarraitzen du poemak: *Norberaren ordua / iristen denean, / orduan... / beldur bat. / Zein beldur? / igual hemen geratzen diren maitte-maittiei / sufriarazi beharrarena*. Liburu gordina da, irudiz betea, sarri oldartuta den itsaso baten indarra duena, itsaso kontra bat dena bere horretan. Heriotzari buruz ari den liburu bizia.

Bestalde, Oihane Amantegiren *Ibaier-tzeko ipuina*-n, hildakoa haur jaio berri bat da eta ahots narratiboa bere bikia den ahizparena da: *Eta, hala, hurrengo urteko martxo hasieran, ibaiak gaindi egin zue-nean, ahizpa bikiarekin batera jaio nintzen ni. Bikiak, berdin-berdinak, ispiluaren ispilu, ahoaren aho eta sudurraren sudur,*



eskuen esku eta zilborraren zilbor, bata bestearen atzetik, baina heriotza bizitzaren atzetik doan bezala agertu nintzen ni lehenengo, bizirik, eta ahizpa gero, hilda. Batzuen alaba eta bestearen ahizparen heriotza goiztiarrak eragiten duen hutsuneaz, minaz eta doluaz ari da liburua. Bizitza eta heriotzaren mugak malgutzen ditu protagonistaren barne mundua, irudimena eta fantasia erabiltzen ditu ahizparen falta osatzeko eta absentsia presentzia bezalako betetzeko. Idoia Asurmendik aulki-jokoa abestian kantatzen duen bezala: *Ta zenbat okupatu dezakeen ez dagoen zerbaitek...*

Ikusi bezala, gaiak askorako ematen du, eta asko dira hain zuzen ere heriotzaz mintzo diren liburuak. Hautaketa pertsonala egin dut hemen, lagin bat besterik ez da. Beste liburu batzuk izan zitezkeen arren, aipaturikoak dira hautaturikoak.

Haur eta gazte literaturari erreparatuz, Mariasun Landaren *Aitonaren txalupan*, Tim Bowley eta Natalie Pudaloven *Jakes eta herio*, Idoia Garzes eta Belatzen *Kukuaren kantua*, Uxue Alberdiren *Hili* edo Astrid Lindgrenen *Lehoi Bihotzdun anaiak* dira gaia lantzen dutenetako batzuk. Metafora ederrez beteak zenbait, galdera existentzialista eta filosofikoz

beteta hainbat, abenturazko liburua tartean... Heriotzari leku, modu eta begirada desberdinetatik heldu ahalko diogu proposamen hauen bitartez. Tonu aldetik ere aniztasuna eta aberastasuna aurkituko ditugu: hunkigarriak dira batzuk, hausnartzera gonbidatzen gaituzte besteek, eta umorea ere aurkituko dugu. Irakurle bakoitzak bere gustu, aukera eta momentuaren arabera aukera dezan.

Arimen gaua, Gaba Baltza, Domu Santu eguna, Halloween edo Shamain egunaren bueltan ari gara. Udazkeneko ekinozioa eta neguko solstizioaren artekoa da urriaren 31tik azaroaren 1erako gaua. Egunak moztzen hasiak dira eta iluntasuna lekua hartzen hasia da. Negua gertu da. Hartza loak hartu du. Arbolak, basoak haizeak biluztu ditu. Isiltasuna nagusitu da. Hegaldu dira txoriak leku epelagoen bila.

Hildakoen arimek ere jatorrizko etxeetarako bidea hartu dute. Baina ikusiko ote dituzte plastikozko kalabazak? Jakingo al dute gure hildakoek Halloween dela beraiek itzultzeko eguna? Ulertuko dute ezer gure haurrek "ziria ala saria" esaten dutenean? *Itzalitako kalabazan berpiztea* liburuan primeran jaso eta azaltzen digute Josu Ozaitak eta Jaime Altunak egun horrek Euskal Herrian zein

beste kulturetan izan duten garapen eta tradizioa; eta Oier Araolaza antropologoak *Barren* aldizkarirako egin zioten elkarrizketa batean kontatzen du Euskal Herrian husten zirela kalabazak, jartzen zitzaizkiela kandelak, izara eta trapuekin mozzorrotzen zirela haurrak eta eske errondak egiten zituztela sagar, gaztaina eta abar eskatuz. Gure tradizioetik gertuago dagoen hitzezko formula ederra proposatzen du: *Xanduli, manduli, kikirriki.... eman goxokiak guri*. Benetako kalabazaren faltan aurki dezaten gure hilek ere beren etxerako bidea. ●



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

**Baltsamazio, kontserbazio
eta berreiraketan adituak**

**Beilatoki guztiak, errausketak,
Aseguruekin ere lan egiten dugu**

Munalurra 8, Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 362 163 / 660 388 652

**MARMOLES
SOULE**

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



Museoa



KATHARINE HEPBURN

TIFOI ARGAL, PEKATSU ETA HARROA

Aditu andanaren arabera, historiak eman duen emakumezko aktore estatubatuarririk onena da Katharine-Houghton Hepburn (1907-2003). Erreparatu palmaresari: emakumezko antzezle onenaren lau Oscar sari jaso duen emakume bakarra da. Lautik hiru, gainera, 60 urtetik gora zituenean jaso zituen. Kontu bitxia Hollywoodeko izar sistemaren eta emakume aktoreen harreman matxista aintzat hartuta, emakumezko antzezleen ibilbidea goiz mozten baitute, emakumeen "zahartze onartezinaren" ondorioz.

 JULEN AZPITARTE

Aktore lan laudatu horrez gainera, bere jarrera inkonformistagatik ere nabarmendu zen Hepburn, 1930eko hamarkadako zinema irauli baitzuen bere nortasun independente, liberal eta feminista tarteko. Irlandar jatorriko Spencer Tracy aktorearen bikotekidea izan zen, hala zinean, nola maitasunean. Bien arteko aferak 27 urte iraun zituen, Tracyren alkoholismoa eta sinemen katolikoak gorabehera.

Iragan ekainaren 29an, Hepburnen heriotzaren 20. urteurrena bete zen. Aitzakia egokia guretzat, Hollywooden urrezko garaiko balio tradizional eta heteropatriarkalak hankaz gora jartzeko ausardia eta inteligentzia erakutsi zuen aktorearen nortasunean eta ibilbidean murgiltzeko.

Broadway-ko antzokietan ibilbide oparoa egin ondotik iritsi zen Los Angeles hiriko ametsen barrutira, Hollywoodera. Ailegatu bezain pronto, sasoiko zutabegile entzutetsu batek



sekulakoak bota zituen haren inguruan: "Katharine Hepburn izeneko tifo argal, pekatsu eta harroak Hollywood kolpatu du, arau guztiak hautsi ditu, desatsegina da, eta ez du laguntzeko jarrerarik erakusten. Prensari gutxiesten du, eta inozokeriekin erantzuten dio. Argazkietan makillajerik gabe ateratzen da, bere orezta guztiakin, eta okerreana, gizonak bezala janzten da".

Ondorioz, pertsona bitxitzat hartu zuten zinearen negozioan, besteak beste, garaiko emakume aktore ilehorien xarma bere presentzia hutsaren bidez ezereztatzen baitzuen. Begirada kritiko eta iraultzailea bere jardun osora hedatu zuen. Esaterako, ez zuen agenterik izan, eta hori dela eta, berak negoziatzen zituen kontratuak estudioekin. Publizistekin ere ika-mikaka aritzen zen, betiere, bere defentsan, bere bizitza pribatua babesteko asmotan.

Jarrera ironiko eta adimentsu hori gurasoengandik jaso zuen –ama, Katharine Martha Houghton Hepburn, lider sufragista ezaguna zen–, eta bere filmetan erakusteko aukera izan zuen. Hartara, Hepburn modernitatearen ikur bihurtu zen Hollywood zaharrean. George Cuckor zuzendariak honela esan zuen: “Hepburnek ez zuen antzekotasunik 1930eko urteekin, bere figura propioa zuen, eta geroagoko emakumeak bera imitatzen hasi ziren. Hamarkada horrek, gero, bere antza hartu zuen”.

LEOPARDOA

Cuckorrekin egin zuen lehen filma, *A Bill of Divorcement* (1932). Zinegilearen eta aktorearen arteko harreman estuak zortzi film gehiago irauten zituen. Urtebete geroago, bere lehen Oscar saria jaso zuen *Morning Glory* (Lowell Sherman zuzendariarena) filmean egindako lanagatik. Hala, aktore "hezi-gaitzak" RKO estudioa konkistatu zuen lau urteko epe eskasean.

Arrakasta horren ondorioz, hainbat filmetan agertu zen, tartean, gaur egun *screwball* generoko komedia zoroen ikono bihurtu den maisulanean, hain zuzen, Howard Hawksek 1938an maisuki zuzendutako *Bringing Up Baby* filmean. Hepburnek eta Cary Grantek osatutako bikotearen antzezpena aparta eta gogoangarria da, eta kontakizuna erritmo zorabiarriaz katramilatzen da, Dudley Nichols eta Hagar Wilde gidolarien egindako lanari esker. Leopardoaren agerpenak, kasik surrealista, zinezale guztien memorian iltzatu dira; Hepburnek hain justu, ezbehar bat baino gehiago izan zuen animaliarekin filmaren grabaketan. “Nik ez neukan adimen nahikorik, eta hainbat eszena egin nituen piztia aske zegoela”.

Hawksen lana ere azpimarragarria da, *gag* barregarriak abiadura frenetikoz filmatzeko erakutsi zuen maisutasunagatik. Ez zen askoren gustukoa izan: *Bringing Up Baby* filmak diru gutxi jaso zuen, ikus-entzuleen harrera txarragatik.

POZOIA

1930eko hamarkada amaitzean zegoela, Hepburn “leihatilarako pozoia” izendatu zuten negozio gizonak. Horrekin batera, ez zuten aktorearen nortasun menderaezina jasaten. Egoera lazgarri horren aurrean, RKOn kontratua

Ez zuen agenterik izan, eta
publizistekin ika-mikan
aritzen zen, bizitza pribatua
babesteko

Lau Oscar sari jaso ditu.
Ez da inoiz ekitaldietara
joan; beti bidali du norbait
saria jasotzera

txikitu eta Broadwayra itzuli zen. Arrakasta lortu zuen *The Philadelphia Story* antzezlanarekin. Sasoi hartan Howard Hughes ekoizle xeble eta diruduna zuen bikotekide, eta hura konbentzitu zuen obraren zinerako eskubideak eskuratzeko. Bere konfiantzako zinegile George Cuckorrenan jo zuen Hepburnek, eta 1940an *The Philadelphia Story* estreinatu zuten, James Stewarten eta, berriro ere, Cary Granten partaidetzarekin. Filmak marka guztiak hautsi zituen, eta Hollywoodek Hepburn onartu behar izan zuen behin betirako.

Komedia zehatz eta arbia da, zeinak prentsa, aberats berriak eta itxura sozialak zirikatzen dituen ironiaz. Filmaren harira, Peter Bogdanovich zine zuzendari eta kritikari estatubatuar itzaltsuaren hitzak aintzat hartzekoak dira: “Hepburn mugatua izan zenaren sentsazio deuseztatzailea dago (...) Jimmy Stewart Hepburnekin agertu zen aldi bakarra da, eta haien arteko kimika maltzurra da”.

BIKOTEA

1942an, *Woman of the Year* izenburuko gidoi baten eskubideak erosi zituen Hepburnek, eta gogokoen zuen akto-

rearekin filmatzea deliberatu zuen. “Kirol kronikari eta zutabegile politiko baten inguruko istorio bat neukan, eta Metro Goldwyn Mayer-eko Louis B. Mayer-i eraman, eta hauxe esan nion: nahi baduzu zuretzat, baina ni izango naiz zutabegilea eta Spencer Tracy kirol-kronikaria izango da”.

27 urteko harreman profesional eta sentimentalaren hazia bilakatu zen filma. Guztira bederati lan egin zituzten elkarrekin, eta gehienetan sexuen arteko norgehiagoka jorratzen zuten. “Pantailan ohiko bikote iparramerikarra ordezkatzeko genuen: bera indartsua zen, baina sentibera; behartu egiten ninduen, geldiarazi arte. Eta horrela amore ematen genuen, elkar otzandu arte”.

Ez ziren sekula ezkondu: Tracy irlandarra zen, katolikoa, eta ez zuen aurreko emaztearekin dibortziatu nahi. Bi haur zituen, eta emazterei errespetu osoa zor zion. Ez ziren inoiz elkarrekin publikoaren aurrean agertu. “Harreman irekia izan genuen, inoiz ez zidan enbarazurik egin gizon ezkondu batekin bizitzeak. Bai bere emazteak eta bai nik elkarri ez ikusiarena egiten genion”.

1967an filmatu zuten soinez soin filmatu zuten azken obra, arrazarteko harremanen inguruan ardatzen den *Guess Who's Coming to Dinner* (Stanley Kramer-ena) ospetsua. Hepburnek bere bizitzako emaitza komertzial onenak lortu ez ezik, Oscar berri bat ere eskuratu zuen. “Spencer ez zegoen ondo. Stanley Kramer zuzendariak konbentzitu zuen etxetik atera zedin eta bere arazoak ahaztu zitzen. Ez dut inoiz film hori ikusi, ezin dut. Filma bukatu, eta hamazazpi egunera zendu zen Spencer”.

Harrezkeroztik, antzezlan sakonagoak antzeztu zituen Hepburn-ek, eta zahartzaroarekin batera, beste bi Oscar sari jaso zituen: Anthony Harveyk 1968an zuzendutako *The Lion in Winter* filmean egindako lanagatik, eta Mark Rydellek 1981ean filmatutako *On Golden Pond* pelikulan burututako antzezpenagatik. Ez zen inoiz Oscarren ekitaldietara agertu, beti bidali zuen norbait sariak jasotzera. Eta bere ohiko ironia erakutsiz, hauxe esan zuen Hollywoodeko estudio handien ordezkari den sarien harira: “Oscarrak oso politikak dira, baina ez dira oso lagungarriak arropak garbitzeko, zineko erreginak ere, arropak garbitu eta lehortu behar baititu”. ●



LIBURUA

Helduentzat ere obra paregabea



TENTELONTZIA

ANA G. LARTITEGUI

ITZULPENA: J. K. IGERABIDE

A FIN DE CUENTOS, BILBAO, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

Liburu hau irakurketa maila bat baino gehiago dituen obra paregabea da. XV. mende bukaeran idatzitako *Tentelontzia* edo *Zoroen ontzia* obra eta garai hartako hainbat ilustratzaileen lanak kontuan izanik, Lartitegui haur eta helduentzako sorturiko obra zoragarria.

Liburu honetara iristen den haurrak umorezko istorio absurdoa ikusiko du. Tomate landare baten inguruko istorio bat oinarri izanik, hainbat egoera selebrerekin disfrutatzeko aukera izango du haurrak; baita irudietan ageri diren elementu fantastiko, surrealista eta umoretsuekin ere. Izan ere, gazte batek tomate landare bat hartu eta idazki bat jartzen dionean (*Tomateak hamahiru aletara iristean, kontatzen dituen desagertu*

egiten da bat-batean), tomate landare horren inguruko bidaia bitxi eta barre-garriari ematen dio hasiera.

Baina, era berean, irakurle helduagoak gozatu egingo du tentelen hirian bizi zen mutiko bizkor horren ateraldiez eta, horiekin batera, egileak XV. eta XVI. mendeko hainbat ilustratzaile irudietan egiten dizkien erreferentziak harrapatu nahian. Jeronimo Bosch (El Bosco), Desprez, Pietre Brueghel eta hainbat erreferentziak ageri baitira obran zehar.

Liburuko irudi guztiek orrialde biak hartzen dituzte eta ederki islatzen dute duela bost edo sei mendeko giroa, baina horrez gain irudiek balio erantsia ematen diote testuari, zentzugabekeria, lelokeriari eginiko kritika, gertakari absur-

duen umorea eta satira ederki islatuta. Hori guztia horrela izanda ere, Lartitegui album berrietako hainbat elementu erabiltzen ditu ekintzen mugikortasuna eta irakurlearen irakurketa plastikoa bideratzeko, hala nola pertsonaia bera hainbat aldiz agertzea ezkerretik eskuinera ekintzen dinamismoa adieraziz.

Tentelontzia liburu hau aparta eta paregabea dela esan dugu arestian. Irakurketa ugari egiteko modukoa da, eta istorioak duen umoreaz harago, une atseginak pasa daitezke irudietan ageri diren elementu satiriko, surrealista eta umoretsuak bilatzen.

Inork, gainera, hauetan guztietan sakondu nahi izanez gero, QR kode bat du hasieran, eta hainbat pista liburu bukaeran... jolasten jarraitzeko. ●



MUSIKA

Nola esan Rodrigo Cuevas euskaraz



DONOSTIA KULTURA

XALBA RAMIREZ

Nola esaten da Rodrigo Cuevas euskaraz? Beharrezkoa zela inork ez du zalantzan jartzen, eta iritsi da, azkenean, gure sustraiei begirada garaikidez so egiten dien ahotsa. Rodrigo Amarante brasildarra eta Enrique Morente kantari flamenkoa eredu dituen Amoranteren eskutik bada, zer esanik ez.

Folktronika deitzen zaion olatuak eman ditu lore bikainak munduan zehar eta, hamarkada honetan, Espainiako Estatuan dauden herrialdeetan: Baiuca eta crnds Galizian, Asturiasen Llevolu'l Sumiciu eta Rodrigo Cuevas, Katalunian Maria Arnal i Marcel Bages, Andaluzian Califato 3/4 eta Rocio Marquez & Bronco... Bestelako begirada batez, Rosaliak eta C. Tanganak ere edan dute hortik, eta berriki Ralphie Chook ere bai.

Gurean, esango nuke, hurbilketak ez direla heldu oraindik fusio interesga-

rienera. Abangoardia eta tradizioetik ditugu Lurpekariak eta Habia; pop *mainstream*-etik Zetak eta Neomak, esaterako. Lehen biak tradizioaren interesgarriena hartu dute, eta muturrera eramaten saiatu, baina soinu garaikideetara iritsi gabe. Azken biek, azala hartu dute, mamia gehiegi zukutu gabe. Gaia ukitu du Chill Mafiak, berrinterpretaziorik egin gabe, ordea. Salbuespena Verde Pratok, Hairak eta Mairük eman dute, akaso.

Sintesi hegeldarra behar genuen, eta hona hemen Iban Urizar, tradizioaren airea bere eginda, gai dena hizkuntza horretan hitz egiteko, eta esaera berriak eskaintzeko. Kantaera itsas lanbroan sartu du Urizarrek, bertuosismo eta epepeiarik gabe, tonu grisekin paleta ezin interesgarriagoa egin duelako lanaren zortzi piezatan.

Aipatu ereduak ez dira, ordea, estilo bat; begirada da gakoa. Iturri amaiga-



HARRI HERRI HAU AMORANTE

FORBBIDEN COLOURS, 2023

bearen kontua ondo ulertzea da gakoa. Iturria, zaharrak zaharrena izanda, berriak berriena ere badela. Tradizioa ez dela argazki bat, ez dela kontserbatu behar. Berrasmatu behar dela, nork beretik gehituta.

Harri herri hau ulertzen saiatzea oparia da. 27 zapata-ri entzun nion pena sentitzen zuela euskal herritar elebarkarrez, ezin zutelako ulertu, adibidez, Amets Arzallusen bertsorik. Berdina sentitzen dut Amoranterekin. Euskaldunentzako altxorra dela, eta belarriak irekitzen dituenak soilik duela gozatzeko aukera errepikaezina.

Dokan prehistozenoan Amorantek esan zuen esaldi bat nirekin daramat urteetan: "Gozatu duenari bejondeiola, meritua berea da-eta". Artistak egin dezakeelako bere kantua, baina barnetik sortzea entzuleari dagokio. Sekretu hori dakien artista da soilik artista. ●



Joan aurretik itzultzen

UXUE GUTIERREZ LORENZO IBAI MIELGO

Sarrerak agortuta. Lerroburu argia zeukan Zetak-en bira amaierako kontzertuak. Gainera, baten tokian hiru kontzertu eman zituzten Bilboko Kafe Antzokian. "Azkenetan azkenak" izan ziren hirurak, atsedendialdiaren aurreko itxiera hirukoitza. Denetan lerroburu bera: *sold out*.

Goizetik hasi zen abentura. Zetak-en Instagram kontuan irakurri nuen aurretik ere susmatzen nuena (Iruñean gauza bera egin zuten egun batzuk lehenago). Kontzerturako sarrerak genituenontzako proposamena zen: "Inork baino lehenago entzun ahal izango duzu proiektu musikal berriaren unibertso sonoroa". Estu nenbilen kontzertura garaiz heltzeko, eta ezin izan nuen aurre emanaldira joan. Nire kontzertukideen ahotan izan nuen gertatutakoaren berri. Bada, kasko pare bana eman zieten sarreran, eta nor bere zentzumenetan murgilduta ZETAK-en hurrengo diskoaren aurrerapena entzun

zuten. Azkar laburbildu zidaten bizitako: "Reparazen eta Basajaunen arteko elkarrizketa batean tartekatuta entzun ditugu hiru kantuak". Kuriosoa iruditu zitzaidan aurrerapena, taldea joan aurretik itzultzen ariko balitz bezala.

Aurre emanaldiaren ondoren, 21:30ean hasi zen kontzertua. Kafe Antzokiaren goiko pisutik ikustea erabaki nuen. Ez da izerditan blai bukatu nahi duten zale sutsuentzat tokirik onena, baina lasai ikusteko eta entzuteko aukera ematen du. Pello Reparaz, Leire Colmo, Iban Larreburu eta Gorka Pastor goitik behera gorri jantzita agertu ziren oholtzan. Hiruna kantu ezagun jo zituzten kontzertua hasi eta berehala, jarraian, eta publikoak jakinminez begiratzen zien taldekideei, noiz zer gertatuko. Berehala hasi ziren gauzak gertatzen. Kantatzeaz gain, sintetizadore, tronboi eta perkusio artean ere ibili zen Reparaz. Ez aspertzeko moduko emanaldia eskaini zuen taldeak, bereziki

ZETAK

NOIZ: Urriaren 7an.

NON: Bilboko Kafe Antzokian.

kontzertuaren bigarren erdialdean. Hala iragarri zuen ere *look* aldaketak, eta zuriz jantzita azaldu zen Reparaz oholtzara. Katalanez eta ingelesez aritu zen, eta doinu elektronikoen hariak markatu zuen ikuskizuna.

Ordulariak kontzertua bukatzeaz zela iragarri zigun, baina bagenekien leherketa heldu gabe zegoela oraindik. Bira amaiera ixteko, ohiko duen ariketaren erakustaldia egin zuen Reparazek: laugarren horma apurtzea, publiko artean murgiltzea. Tronboia eskuan hartuta eta blafeak gordetzeko erabiltzen den kutxa horietako baten igota Akelarre bat sortu zuen zuzenean Zetak-ek. Publikoaren erantzuna izugarria izan zen. "Gero arte" tankerako agurra egin zuen taldeak: kontzertuan bertan jakinarazi zuten maiztean bueltatuko zirela oholtzara, baita sarrerak salgai jarri ere. Itzulera kantuarrekin agurtu zuten publikoa, eta itzulera-aren zain izango dituzte entzuleak. ●



Hitz geqidunak

INOIZ ASMOZ		ERBESTE LETRA IZENA		DUDARIK GABE			IHESKORRA UXARTUZ		KOLORE PERTSO- NAIAREN ABIZENA		PEREAN DAGOENA KATALUNIAKO BIZTANLEA	
ESPARRU BEGIRADA							ERASO GERTATU					
		LISTU PROZESU KIMIKO			HELDU ADITZAREN INFINITIBOA ARRETA, ARTA	JAKINDURIA ZORIGAITZA, EZBEHARRA						
AZTERKETA ARGIZAGI								EGOKIAK URRI BIHURTU				
				ZUGARRA- MURDIO AUZOA SOKAZKO ZURUBIA						LOTAN LEHORTU		
LANDAREARI ADARRAK EBAKITZEA	GARRAIABIDE PERTSO- NAIAREN IZENA				UGAZTUN MOTA EZTIA EGITEN DUEN INTSEKTUA							OINAREN ATZEALEA
							NORAINO ATZIZKIA ZAPATA					
GALDE PARTIKULA EHIZAKIA, HARRAPA- KINA		TxOLARRE ARRAZOI, ZERGATI							GAR ZAKURRA			
					ZEREALEN ZURTOINA PARA A BARIK						FOSFOROA SOZIJETATE MUGATUA	
SEKRETU JAIOTZERA BEHARTU						IKASTARO AZKEN LETRA						
								ANTXUMEA (BIZKAIAN)				

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8	9	6		2				1	
	1		4	9				6	2
	4	3			1				
7	6				9	2			
9			8			1	7	4	
	3		2		5				
6			3						
	8	2				6			
4		1		6	8	3			9

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Jakina.
- Txerriei ematen zaien janari.
- Gorputzaren barrunbe.
- Klariona.
- Arreskeak.

EBAZPENAK

1. NOSKI
2. OGALE
3. SABEL
4. KLEREA
5. IELAK

4	5	1	7	6	8	3	2	9
3	8	2	9	5	4	6	1	7
6	7	9	3	1	2	5	4	8
1	3	4	2	7	5	9	8	6
9	2	5	8	3	6	1	7	4
7	6	8	1	4	9	2	5	3
2	4	3	6	8	1	7	9	5
5	1	7	4	9	3	8	6	2
8	9	6	5	2	7	4	3	1

V	A	M	U	V	I	Z	V	V	A	V	I	V	I
O	T	R	T	K	U	S	L	P	E	O	S	I	I
P	O	A	S	V	L	V	Z	V	I	H	E		
R	K	A	R	I	O	R	L	O	K	L	V		
O	N	I	A	R	V	E	V	S	T	S	V	N	I
	S	A	T	S	A	O	M	O	R	E	N	T	
O	L	O	R	Z	U	Z	A	V	O	R	R	Z	I
K	A	N	O	V	A	T	E	K	E	R	K	E	I
E	T	I	K	I	V	A	H			T	O	S	
R	V	D	O	L	O					I	S	E	H
V	K	A								Z			X
P	U	U								D	N		

Noelia Sánchez

HAURREN DOLUAREN
TERAPEUTA



HUTSUNEAK SOSTENGATU

“Amak sortu zuen haur-eskolan koskortu nintzen, 3 urte nituen haren atea zabaldu zituenean. Nolabait, nire etxea izan zen. Agian horregatik, beti sentitu izan naiz eroso haurtzaroarekin zerikusia duen edozertan lan egiten. Gerora, Gizarte-laneko ikasketak hasi nituen, nire lehen aukera gizarte-hezitzailea izatea zen arren; notagatik ezin izan nuen. Baina, egun gutxi barru argi ikusi nuen egon nahi nuen tokian nengoela. Adingabeen babes-sistemarekin harremanetan jarri nintzen eta pixkanaka-pixkanaka nire etorkizun profesionala diseinatzeko hasi nintzen, gurasorik ez zuten haurrekin lanean. Orain, atzera begiratu gero, bitxia iruditzen zait: gurasorik gabeko haurrekin lanean hasi nintzen eta orain seme-alabarik gabeko gurasoekin lan egiten dut”.

“Haurtxoen heriotzak pairatu ditugun familien arreta hobetzeko asko dago egiteko”

Noelia Sánchez haurdunaldi zein jaioberrien doluaren terapeuta da. Osasun sistemak haurtxoen heriotzak pairatu dituzten familiak artatzeko dituen gabeziak bere azalean ezagutu ondoren sortu zuen Cor a cor, haurdunaldian zein bizitzaren lehen urteetan galdu dituzten haurren familiak laguntzeko proiektua.

SAIOA BALEZTENA DANI CODINA

Urrian haurdunaldian edo jaioberritan hiltzen diren haurren kontzientziarazioa sustatzen da. Duela hamabi urte zure alaba Cora hilik jaio zen. Bizipen hartatik zure ibilbide profesionalak norabide berria hartu zuen eta haurdunen laguntzaile, doula izateko, formakuntza egin zenuen.

Hala da, bai. Atzera begiratu, ikuspuntu arrazionaletik nire helburua doula izatea zen arren, uste dut pisua izan zuela amatasuna balioztatzekeo aldarrikapenak. Beharra nuen nolabait, ama sentitzeko, soinean haurtxorik izan ez arren. Doula egitekoaren inguruan ezer gutxi nekien, baina formakuntzaren inguruko informazioa aztertu nuenean, argi eta garbi ikusi nuen hori zela nire tokia: dolua eta amatasun bereziak ikuspegi ulergarri horretatik eta sostengutik artatzea ezinbestekoa zen.

Duela hamabi urte bizirik gabe jaio zen zure alaba Cora. Zein dira gizarrean eta sistemaren

dauden gabeziak haurtxoen doluari dagokionez?

2011ko urtarrilean jaio eta hil zen nire alaba eta garai hartan ez zegoen gaur egun adina baliabide. Hasieran, babesik gabe sentitu nintzen, bai nire inguruan eta baita osasun sisteman ere. Bartzelonan bizi naiz eta zorionekoa izan nintzen, izan ere, familia-talde baten laguntza zoragarria izan nuen. Haiek ere, haurren heriotzen doluan zeuden. Astean behin elkartzen ginen eta nire salbazioa izan zen. Aldiz, ospitalean tratatu ikaragarri txarra jaso genuen eta ez ziguten baliabiderik eman pairatutakoa kudeatzeko.

Azken urteetan, Cor a Cor bezala, hainbat egitasmo sortu dira osasun sistemak dituen gabeziak asetzeko. Zer deritzozu?

Haurdunaldian eta jaioberritan hiltzen diren haurren familien arreta hobetzeko lanean buru-belarri aritu gara, eta horri esker, gaur egun hobetzen ari da osasun sistemaren arreta. Ezinbertzekoa da osasun



"Ospitalean tratu ikaragarri txarra jaso genuen eta ez ziguten baliabiderik eman pairatutakoa kudeatzeko".

profesionalek eta erakundeek tratu duina bermatzea.

Hala ere tabua izaten jarraitzen du haurren heriotzak, ezta?

Tira, tabua da heriotza bera, eta bai, haurrena denean gehiago. Nire ustez, gizartean, gertakari mingarriak errefusatzen ditugu, eta ez hori bakarrik, garrantzia kentzen diogu, minik ez sentitzeko ahalegin inkontzientean. Aldiz, heriotza perinatalaren tabua haustea aukera ematen die familiei oinazean hobeto sentitzeko, gutxiago epaitu eta askeago izateko, hildako seme-alabenganako maitasuna adierazteko.

Zer behar dute ume baten heriotza jasaten duten familiek?

Euren haurtxoen heriotzak eragin dien mina eta maitasuna askatasunez bizi behar dute. Ez zaizkie batere axola iritziak, aholkuak eta eskatu ez dituzten hitzak. Aitzitik, oso lagungarria izango zaie zer behar duten galdetzea.

Nola jokatu behar luke haurtxo bat galdu duen familia baten inguruko jendeak?

Tentuz, errespetu handiz eta, aldi berean, presentziaz. Seme-alaba galdu

duen familiaren beharrak entzutea funtsezkoa da, aholku, iritzi eta iradokizunik gabe. Besarkadak eta babesak dira garrantzitsuenak, hitzak soberan dardelako. Ahal den neurrian, etxeko lanetan laguntza eskaintzea lagungarri izan daiteke, erosketak egin, etxea garbitzen lagundu... Mina eta hildako seme-alabekiko maitasuna aintzat hartzea da kontua, funtsean, maitasuna eskaintzea, maitasun handia.

Familiei laguntzeaz gain, profesionalentzako formakuntzak ere antolatzen dituzu. Zertan datza prestakuntza hori eta zer topa dezakete osasun-langileek?

Helburu nagusia da nirekin prestakuntza egiten duten profesionalenak ulertzea nola eragiten dion familia bati bere seme-alabaren heriotzak. Izan ere, nire ustez, profesional batek haurdunaldian edo jaioberritan hil den haurtxo batekin jarraitu beharreko protokoloak ez du garrantzirik, ez badio giza sentsibilitaterik eta babesik eskaintzen familiari.

Horregatik, profesionalen arreta duina aldarrikatzen duzu, erabakigarria delako doluan

aurrera egiteko. Nola jasotzen dute formakuntza profesionalak?

Azpitarragarriena da nire ikastaroetara etorri diren profesional gehienak interes profesionalagatik heldu direla, sarri esperientzia pertsonal batek bultzatuta edo inguru hurbilean gaia ezagutu duelako. Ikasturteak aurrera egiten duen heinean, norberak aldaketa bat ere sentitzen du eta pozgarria da aldaketa-reen ikusle izatea.

Zergatik da beharrezkoa ginekologoak eta emaginak haurdunaldiko eta jaiotza inguruko doluan laguntzeko prestatuta egotea?

Funtsezkoa da osasun profesional guztiek prestakuntza eguneratua jasotzea, heriotza perinatalak eta neonatalak lau haurdunaldietatik bat astintzen duelako. Nahitaezkoa izan beharko luke haurtxo baten heriotza pairatzen duen familiekin lan egiten duten profesional orok doluaz ezagutza minimoa izatea. Formakuntzaren bitartez baino ez da bermatuko artapen duina. Seguru asko, ezin dugu lortu umeen heriotzak saihestea, baina, zalantzarik gabe, haur horiek begiak betiko ixtean jasotzen dugun arreta hobetzeko asko dago egiteko. ●

Hitzak krisian

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Hitzak falta zaizkigu, hori da gertatzen ari zaigun gauzetako bat. Israel palestinarren aurka egiten ari den sarraskiari tamaina hartzeko osatzen dugun esaldi bakoitzak ezintasun sentsazio ikaragarria uzten digu. Aurreko horixe izan daiteke adibidea: “sarraskia”, “ezintasuna”, “sentsazioa”, “ikaragarria”. Idatzi ahala desegiten dira. Hitzez altxa nahi genuke bandera, eta mintz lirdingatsu bat besterik ez dugu haizeari eskaintzeko. Bonbek palestinarrek hiltzen jarraitzen dute.

Saiatu beste modu batera: Israelgo estatu genozida palestinarren garbiketa etnikoa egiten ari da. Bai, horrela dela uste duzu; eta hala ere, zerbaitek ez du funtzionatzen, amildegi bat dagoelako hitz horiek idaztera eraman zaituen bulkadaren eta hitzek euren kabuz adieraztea lortzen dutentxoaren artean. Gertakariak izendatzeko geroz eta kontzeptu larriagoak erabiltzen saiatzeak ez du amildegia handitu besterik egiten. Eta bitartean, bonbek, doilor, palestinarrek hiltzen jarraitzen dute.

Kolonialismoa genozidioa 4.500 hildako bi astean bonbardaketa aire zabaleko munduko kartzelarik handiena apartheid sionista zigor kolektiboa hiltzaileen konplizeak zuriketa hipokrisia zapalkuntza arrazakeria ume hilak ez nire izenean. Egunero-egunero-egunero artikuluetan, txioetan, karteletan, pintadetan erabiltzen ari garen hitzek ez dute gauza handirik esaten dagoeneko. Erresistentzia elkertasuna jende uholdea manifestazio nazionala irtenbide politikoa boikota nazioarteko legedia munduari mezua autodeterminazioa. Denak gasta-gasta eginda daude. Bonbak ez: palestinarrek hiltzen jarraitzen dute.

Uste dut Viktor Xklovski idazle eta literatur kritikari errusiarrak asmatu zuela gertatzen ari zaigun hau esplikatzen,




errepikatzearen errepikatzeaz hizkuntza automatizatu egiten dela azaldu zuten: “Horrela desagertzen da bizitza, ezerezean transformatuta. Automatizazioak irentsi egiten ditu objektuak, ohi-turak, altzariak, emakumea eta gerrari beldurra”. Lev Tolstoiaren egunerokoan aurkitutako esaldi bat aipatu zuen gero: “Hainbeste jenderen bizimodu konplexua inkontzienteki gertatzen baldin bada, bizitza hori existitu izan ez balitz bezala da”. Hitzen debaluazioarekin hasten da, nolabait, bizitzen debaluazioa. Orain, hala ere, sinpleagoa da kontua: Israelen bonbek palestinar bizitza hutserraino debalutzen dute.

Badira, eta miresgarria iruditzen zait, hitzen krisi hau zartatzea lortzen dutenak. Bassam Youssefek komedia beltza

egin du *Piers Morgan Uncensored* saioan: palestinarren aurkako diskurtsoarekin bere burua gainidentifikatuz, agintari mendebaldarren eta haien zerbitzura lan egiten duten iritzigileen barru ustela agerian uztea lortu du. Bonba semiotiko txiki bat. Baina benetako bonbek palestinarrek hiltzen dituzte hala ere.

“Bihar Gazan ez dago eskolarik, ez baita geratzen joango den umerik” kantatzen zuten ultrasenak sionistek Tel Aviven 2014an, beste sarraski baten erdian. Poeta kaskarrak ditu masakreak, hiltzaileak ez du asko nekatu beharrik hitzak bilatzen. Guk aldiz, bai. Saiatu behar dugu inpunitate hau ebakiko duten hitz zorrotzak aurkitzen, Israelen bere bonbekin palestinarrek hiltzeari uzten dion arte. ●



Liburu berria

Prezioa **22€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.



Nola bizirik da artzain bat? Galderari erantzuna baino gehiago, liburu honetan aurkituko duzu *zer bizirik duen artzain batek eta horrek nola zeharkatzen duen.*

Eguneroko batean jaso du protagonistak artaldearen urtebetea. Bizipenak, hausnarketak, borrokak, ezinak eta pozak.

Artzaintzaren *imajinario estandarrean* sartzen ez den artzaina dago orrialdeotan: emakumea, euskalduna, ekologista, barazkijalea...

BERTAKO -rekin, BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz konfiantza osoa eta lasaitasunari
- Baietz bertako hornitzaileei

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



WWW.BERTAKO.EUS

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

bertako
igogailuak | ascensores

